



ARGIA



14 MIKEL PAREDES MANOT, 'TXIKI'-REN ANAIA

“ETAk hamar urte daramatza isilik, eta hala ere, ez gaituzte bakean uzten”

2.659 | 2019/09/29 | 3,90 €




Erraustegiak ez dira klimaren zoratzearen beldur

10 | NET HURBIL



Krisi ekonomiko globala berriz ere esnatzeaz

23 | EKONOMIA



LARRUN #245
Jaka Horiak eta krisi ekologikoa



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
ZALDI ERO

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | MAIALEN BERASATEGI
- 21 | BEÑAT MUGURUZA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | ANE LABAKA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
OLIVIER DUCHARME
- 54 | BERANDUEGI



10 | ERRAUSLEAK EZ DIRA KLIMA ALDAKETAREN BELDUR

Pello Zubiriak egindako erreportajearen ikus daitekeenez, erraustegien aldeko lobbyek beren jardura kutsatzailea kokatu dute klima aldaketaren aurkako jardura gisa. Hala da Gipuzkoan, Bizkaian, Mallokan edo Zeelanda Berrian. Elektrizitatea sortzen dutela argudiatuz, marketing kanpaina etengabeak hondakinak erretzearen aldeko mezuak zabaltzen ditu etengabe.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | MIKEL PAREDES MANOT
**"Hain dira burumotzak,
ez dakite zer den idealismoa,
ez askatasun egarria"**

Miel A. Elustondo

23 | EKONOMIA
**Krisi ekonomiko globala
berriaz ere esnatzeaz**

Urko Apaolaza Avila

29 | POLITIKA | KALEA GUZTIONA DA
**Hormak irudikatzen du
herriaren aldarria**

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

32 | EUSKARALDIA
**Parte-hartzaileek diote
hizkuntza ohiturak aldatzeko
balio izan diela**

Onintza Irureta Azkune

34 | HEZKUNTZA
**Sortu, birziklatu,
harremanak eraiki**

Gorka Peñagarikano Goikoetxea

44 | KULTURA | ARRANO PERTXA ETA LENGU ILUNA
"Fuck aberria, gora euskara"

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaia Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua,
Inaut Gonzalez de Matauko,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Mikel Asumendi, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo,
Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurti, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da
ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukia
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Udarenak egin du

Abuztuko oporraldiaren akaberarekin batera, eskola eta lantokietako ateak berriz irekitzean, amaitzen da ofizialki askorentzat uda. Landare eta zuhaitzetan baino dendetako erakusleihoetako jantzieta dugu sumatzen kolore aldaketa. Bizitza modernoa omen. Batzuentzat goibel aroa, neguantz edo ihartze delako agian, besteentzat aldiz, udagoien, eder. Edozelan ere goza dezagun mudantza, munduan ez dira asko lau urtaroak osotasunez bizitzeko aukera duten herrialdeak. Klima aldaketak kontrakoa agindu aurretik, bederen.

 EKAITZ ZILARMENDI  AXIER LOPEZ





"ATHLETIC-EK ZERGETAN AURREZTUKO DU. BIZKAITAR GUZTIOI LAPURTZEN DIGUTE PRIBILEGIATU BATZUEN IZENEAN, BAINA GERO 'ARAZOA' RGI-AN DAGOEN IRUZUR APURRA OMEN DA"

@enekogara



"AUZITEGI GORENEAN ESPERANTZA IZPI BAT GERATZEN ZAIGU, NORBAITEK SEN ONA JARRI BEHAR DU ALTSASU KASUAN"

Altsasuko Gurasoak
DIARIO DE NOTICIAS



"ELEBITAN HASI DUTE ZINEMALDIAREN IREKIERA EKITALDIA. HALA ERE, GAZTELANIA NAGUSI. UTOPIA: DONOSTIAKO UDALAK IZANGO AL DU INOIZ AUSARDIARIK HALAKOAK EUSKARA HUTSEZ EGITEKO? BERTAKOARI BALIOA ETA IKUSGARRITASUNA EMANGO LIOKE. ETA ITZULTZAILEEI LAN PIXKA BAT"

@i_zelaia



"AURTEN BI ALDIZ EMANGO DUTE BOTOA HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLEEK ESPAINIAKO HAUTESKUNDEETAN. 140 MILIOI EURO KOSTAKO DA HAUTESKUNDEAK ERREPIKATZEA. ESPAINIAKO ESTATUAK AZKEN LAU URTEETAN 540 MILIOI GASTATU DITU BOZAK ANTOLATZEN"

ARGIA



ELDARIODELNORTES

Victor Bravo, ebazpenaren zain

ARGIA

Irailaren 19an amaitu zen EAJko senatari ohi eta Gipuzkoako Ogasuneko zuzendari izandako Victor Bravoren aurkako epaiketa. Fiskaltzak seitik bederatzi urtera igo du haren aurkako espetxe zigor eskaera, 1,4 milioi euroko iruzurra leporatuta

Epaiaketaren amaieran, fiskaltzak eta Espainiako Estatuaren abokatuak frogatutzat jo dute Victor Bravoren iruzurra. Bien ustetan, Tarragonako Glass Costa Este Salou enpresaren egoitza fiskala Gipuzkoan ezarritz eta abantaila fiskalak baliatuz egin zuten iruzurra Bravok eta haren bazkide batek. Enpresak, batetik, ez zuen egiazki jarduerarik Gipuzkoako lurraldean. Bestetik, enpresari izaera berezia aitortuta, irabaziengatik %1eko zergak ordaindu zituen, lege ordaindu beharreko %28aren orde.

Bravoren parte-hartzea eta ezagutzak ezinbestekoak izan ziren iruzurra gauzatu ahal izateko, akusazioen esanetan: EAJko senataria zen garaikoa litza-teke iruzurra, baina aurretik Gipuzkoako Ogasuneko zuzendaria izan zen Bravo, 1992 eta 2003 urteen artean. Frogatutzat eman dute berak pertsonalki gordez-ten zuela "zuzendariaren armairuan" iruzurra egiten zuen enpresaren expediente, bere kontroletik kanpoko inongo ikuskatzailek eskura ez zezan.

Fiskaltzak sei urtetik bederatzi urtera igo du Bravoren aurkako espetxe zigor eskaera. Horrez gain, Gipuzkoako Ogasunari 1,4 milioi euro bueltatzea eskatzen dio (ustez lapurtutakoa, eta interesak). Espainiako Estatuaren abokatuak bederatzi urte eskatzen zituen Bravorentzat epaiketa hasi aurretik, 1,8 milioiko isunarekin batera, eta eskaera mantendu du.

Bravorekin batera Glass Costa enpresako administrari eta Bravoren bazkide Fernando Isidoro González izan da epaitua egunotan. Fiskaltzak sei urtetik lau urte eta erdira beheratu du haren aurkako zigor eskaera. Gonzálezek milioi bat euro kontsignatu ditu epaitegian epaiketa hasi aurretik, eta hori dela eta aringarria aplikatu dio fiskaltzak. Estatuaren abokatuak bederatzi urteko eskaera mantendu du.

Defentsek akusatuen errugabetasuna aldarrikatu dute. Donostiako Zigor-ar-loko lehen epaitegian auzia amaituta, sententziaren zain gelditu dira aldeak. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Biriatu, Lapurdi



ARITZ GALARRAGA

Frankie, beraz, beste munduko ezer ez, baina zeozer mugiarazten dizu tripetan –eta ez al da hori film batek, artelan batek lor dezakeen gauzarik behinena?–. Argumentua, egia da, ez du bereziki originala: larriki gaixorik dagoen frantziar aktore batek bere hurkoak elkartzen ditu, Sintra, Portugalen, agurtzeko edo. Bikotekidea, bikotekide ohia, semea, alaba-ordea, lagunak bat. Une labainak izan arren, gonbidatuen arteko frikzioak sortu arren, hiltzera doanak nahi duen bakarra da: denbora tarte atsegin bat pasatzea denek elkarrekin.

Garai batean pentsatzen nuen nahiago nuela kolpetik hil –ez oraindik, lasai, ez daukat interes berezirik–. Baina kolpetik, auskalo bizi bitartean bizitzari buruz soilik pentsatu ahal izateko, eta modu horretan heriotzaren ideari iskin egiten saiatzeko. Orain ordea ez nago hain ziur, zalantza handiagoak ditut: ez ote nukeen jakin nahi noiz izango den bukaera, gutxi gorabehera, joateko pixkanaka pertsona maiteei agur esaten, itxi beharreko gauzak ixten, bizitzari osotasun bat, zentzu bat, narrazio bat ematen. Absurdoa da, badakit, oker ez banago ez baitugu aukeratzeko modurik.

Aukeratzeko agian ez, baina prestatzeko zergatik ez. Sophie Calle artistak, adibidez, badu dokumental moduko bat, zeinean agertzen den hilobi bat erosten, Bolinas, Kalifornian. Hilobi bat beretzat, noski, dagoeneko mundu honetan ez dagoenerako –eta ze gai egokia den hau, heriotzarena, eufemismoentzat–. Ez zait ideia txarra iruditzen. Nik ere, ausardia bilduko banu –eta, noski, diru pizar bat–, erosiko nuke hilobi bat, niretzat, dagoeneko mundu honetan ez dagoenerako. Zalantzarik gabe Biriatu, Lapurdin. Eta egingo nioke bizian bisitaren bat, aldaketaren bat, apainketaren bat. Ez baita ahaztu behar bertan pasako dudala eternitate osoa. Eta hori denbora asko da. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“ETORKIZUNEAN ERE ERREPRESIOA PAIRATZEN JARRAITUKO DUGU”

IBON MEÑIKA ORUE-ETXEBARRIA, 11/13 MAKROEPAIKETAKO AUZIPETUA

“Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du inoiz euskal herritarren antolakuntzaren eta borrokaren zilegitasuna epaituko, ez du gure jardura ona edo txarra izan den erabakiko. Horrela ulertzea oso garrantzitsua da, bestela Auzitegi Nazionalari ematen baitiogu hori erabakitzeko boterea. Guk preso eta iheslariak etxeratzeko lanean jarraituko dugu, borroka horretan aktibo izaten jarraituko dugu. Eta gure lana epaituko duen bakarra Euskal Herria izango da. Gu horri zor gatzazkio”. **ARGIA.EUS (2019/09/20)**

Menpekoak



JUAN MARI ARREGI

Aste hauetan bizi dugun egoera ekonomiko eta politikoak bi gauza erakusten dizkigu. Bat: munduan, Europan eta estatuetan egiten diren politiken erabat menpeko gara, baita gas eta petrolio produkzioaren menpeko ere. Bi: gobernuen esku dauden politikak, aldi berean, ekonomiaren gorabeheren menpe daudela. Horregatik da hain garrantzitsua zein talde politiko dagoen gobernuan, modu batean edo bestean, bi aldagai horiei aurre egiteko.

Europako mantsotze ekonomikoak egitate bat dirudi jadanik: Alemaniak “katarroa” dauka eta gainerako herrialdeak kutsatuko ditu. Txina eta AEBen arteko harremanak ez daude onenean, eta hori oso albiste txarra da esportaziora emanak dauden herrialdeentzat, Euskal Herria kasu. Eta honen guztia- ren erdian petrolioaren arazoa sortu da, Saudi Arabiako petrolio azpiegiturak ustez jasadako erasoaren ondorioz, Trumpek noski, Iran jotzen baitu errudun. Eta AEBetako egungo presidentea ezagututa, Golkoko gerra berri bat eragin dezake horrek, kalte humano, sozial eta ekonomiko handiekin mundu osoarentzat. Horretara ez gara iritsi oraindik, baina garbi geratu da petrolioaren gure ekonomiaren oinarria dela eta kontsumorako produktuak garestitzen ari dela, enplegua bera ere mehatxatuz.

Euskal Herria ere menpeko da, Espainia, Frantzia, Alemania, AEB eta Txinaren menpeko, baita petrolioaren menpeko ere. Menpekotasun ekonomiko-politiko horri aurre egiteko, beharrezkoa da lanean jarraitzea eta erabakitze eskubidearen alde borrokatzen segitzea, gehiengo sozialari mesede egingo dien politikak aurrera eramateko. Ezin dezakegu ahaztu, aukeratzen dugun gobernuaren arabera izango gara menpekoago, ala ez. ●



HERALDO

Ikasturte hasiera hau ez da serioa

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bi aste pasa dira EAEko eskola publikoetan ikasturtea hasi zenetik, eta hasierako kaosa konpondu beharrean (irakasle faltan dauden ikastetxeak, administrazioak postu bera irakasle bati baino gehiagori ematea, gauza bat eskaini zaien eta ikastetxean beste bat aurkitu duten maisu-maistrak...), are kafkiarragoa bihurtu da egoera: punturik ez duten irakasleei esleitu dizkie plazak Jaurilaritzaren Ordez- kagunea aplikazio telematikoak, plaza hori jaso behar zutenak esku hutsik utziz. Ez omen da aplikazioaren hanka-sartzea izan, hartutako erabakia baizik; baina handik gutxira jakinarazi du Hezkuntza Delegaritzak postuen banaketa errepikatuko dela. Ulertezina da gertatzen ari dena, eta Hezkuntza sailburuak –oraindik eman ez dituen– azalpenak zor dizkie euren lanpostuak dantzan ikusten dituzten irakasleei.

Ehunka dira ez aurrera ez atzera dabilen ordezko irakasleak, egokitu zaien ikastetxera kilometro andana egin ostean etxera buelta egin behar izan dutenak postu bera beste bati ere eman zaiolako, edo lan eskaintzarik jaso gabe daudenak beraiei dagokien postua punturik ez duen irakasleren bati eman zaiolako, edo postu bat agindu eta ikastetxera iritsi direnean postua guztiz bestelakoa dela ikusi dutenak, edo irakaslerik gabe dauden haurrak postu hori oraindik bete ez delako... Jaurilaritzak aurtan Ordez- kagunea aplikazio telematikoa jarri du martxan irakasleen postuak banatzeko, eta sortu den anabasa ez da nolanahikoa.

Irakaskuntzan ezegonkortasun handiena dutenei eragin die gainera. Hamarretik lau irakasle behin-behinekoak dira EAEko hezkuntza publikoan, eta hain juxtu ordezko irakasle diren horiek ikusi dituzte dantzan beren lanpostuak. Haserre daude, eta erraklamazioak jartzen hasiak dira. Bide judiziala ere iragarri dute sindikatuak; ikusiko dugu zein bide egiten duen horrek guztiak.

Erreklamazioek izan ditzaketen ondorioetara itxaron gabe, baina, erantzunen bat merezi dute irakasleek. Arazo teknikoak aipatu zituen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, aplikazio telematikoaren irizpideak oso argi dauden ere ez dago garbi, hanka-sartze hauek zergatik ematen ari diren ez dakigu, ez eta zergatik erabaki den adibidez punturik gabeko irakasleengandik hastea postuen eskaintza... Cristina Uriartek esatea “arazo puntual batzuk” direla eta ikastetxeetako profesionalei “pazientzia pixka bat” eskatzea ez da nahikoa. Tamaina honetako kalapitak neurriko erantzukizun politikoa eta neurriko azalpenak eskatzen ditu. Hau ez da serioa. ●



ERNAI

LAN HERIOTZA TUBACEX ENPRESAN

AMURRIO. Bero-kolpe baten ondorioz bihotzekoak jota, Tubacexeko Amurrioko plantan lanean ari zen 59 urteko behargina hil zen irailaren 17an. Azpikontratatu-rik zegoen eta lan-prekarietatearen ondorioz hil dela salatu dute, hainbat elkarretaratzetan. Uztailaren 4an enpresa bereko beste gazte bat hil zen, Laudioko plantan. Argazkian, Ernaik egindako ekintza: euren buruari margo gorria bota zioten enpresaren atarian.

ATHLETIC ETA ZERGAK 15 milioi

euro aurreztuko ditu zergetan Athletic futbol taldeak, Bizkaiko Diputazioak abuztuaren 23an onarturiko aldaketa fiskalagatik. Horrekin batera, San Mames estadioan jokatu den 2020ko Eurokopari lotutako erregimen fiskal berezia ere argitaratu zuen Diputazioak: Eurokopa kudeatuko duten hainbat enpresek ez dute zergarik ordaindu beharko.



Lau milioi lagunetik gora atera ditu kalera klimaren grebak

ARGIA

Angola, New York, Bangkok, Tasmania, Hiroshima... Mundu osoko herritarrak mobilizatu dira, klima aldaketaren kontra aurrekaririk ez duten manifestazio masiboetan. Larrialdi egoera bizi dugula salatu eta politikariak neurriak hartzea bultzatzea dute xede.

ASTEBETE

Irailaren 20tik 27ra, astebete luza-tu dira protestak. Hitzaldi, tailer eta ekintzez gain, mobilizazio nagusiak ostiraletarako utzi dituzte (irailak 20 eta 27), ostirala izan baita klima aldaketaren aurka manifestatzeko ikasleek hasieratik aukeraturiko eguna.



BAITA EUSKAL HERRIAN ERE

Gurean ere mobilizatu dira herritarrak. "2030. urtean dugu muga, eta arro mediterraneanrean dauden ekosistemarik hauskorrenetakoak ditu Iberiar Penintsulak. Klima-aldaketaren mehatxua gehien jasango duen eskualdeetako bat da", gogoratu dute.



POTRETAK. ANV-COP21 kolektiboko kide bik epaiketa izan dute, otsailaren 21ean Emmanuel Macron Frantziako presidentearen erretratua erretiratzeagatik. Lyoneko Zigor-arloko Epaitegiak aske utzi ditu, ekintza interes orokorrekoa eta zilegia den arrazoi batengatik burutua izan zela iritzita.



LANGILEAK BORROKAN. Irailaren 19an grebari berrekin zioten Gipuzkoako zahar etxeetako langileek; urriaren 18ra arte iraungo du greba deialdiak. 2018ko urriaren 26an egin zuten lehen greba eguna, eta ia urtebete geroago, egoera ez da konpondu.



INDEPENDENTISMO KATALANA JOMUGAN. Hainbat pertsona atxilotu ditu Guardia Zibila Katalunian. Operazioa "bortxazko ekintzak prestatzen ari ziren independentisten" aurkakoa dela esan dute, eta atxilotuak CDR-ekin lotura lukete. Espainiako Auzitegi Nazionalak agindutako operazioa izan da.

ERRAUSTEGIAK EZ DIRA KLIMAREN ZORATZEAREN BELDUR

Irailaren 27rako dago deituta mundu osoan klimaren aldeko mobilizazio handi bat, Euskal Herrian ere zenbait mugimendu eragingo dituen. Horietan asko ala gutxi aipatuko ote dute Lurra planetako kliman errauste plantek daukaten eragina? Hondakinen kudeaketan nagusi diren konpainia pribatuek klimaren kontrako borrokaren partetzat defenditzen dute beren jarduera, Gipuzkoatik Zeelanda Berrira Bilbo eta Mallorkan barna bidaiatuz ikusiko dugunez.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO


Uztailaren 25ean bostehun herritar azaldu ziren Zeelanda Berriko Hokitika herriko areto nagusian agintarien ahotik entzuteko proposamen txit erakargarri hau: Westland eskualdeko erraustegi berria bertan egitea. Urtean 300.000 tona erre 28 Megawatt argindar sortuko lituzke, gehi aski ur bero inguruko izokin eta izkira haztegiak eta negutegietako baratzeak girotzeko. Eraikuntza fasean 150 lanpostu eta ohiko funtzionamenduan 60 enplegatuko lituzke. Labeetan geratzen diren zepa edo eskoriekin hormigoia egingo lukete eraikuntzarako eta zaborrak Hokitikira kamioietan ez, trenez ekarriko lituzkete, horiek bueltan eskualdeko behitegi handietako esnez kargatuta itzularaziz hutsik bidaltzeko partez.

Westlandeko hedabide nagusia den Stuff egunkarian Joanne Carroll kazetariak kontatu duenez, “*erraustegi proposamenak ez ditu konbentzitu Mendebaldeko Kostako herritarrek*”. Proiektuaren ardura daraman Renew Energy konpainia publikoaren burua mintzatu zen eta entzuleak lasaitzeko azpimarratu zuen oraingo proiektuan dagoen enpresa ez dela txinatarra, Europako enpresa bat dela, izenak ematea ukatuz. Hokitikiko jendeak lasaitu nahi zituen: 2005etik eskualdean jira eta buelta dabilen erraustegiarentzako kokagunea ia-ia lotuta zutenean, Buller herriko udal batzak kargutik kendu zuen alkatea, negoziaketak sekretuan eraman izanagatik.

Kevin Stratful da Renew Energy konpainia publikoaren burua eta aldi be-

rean WestCoast eskualdeko garapen ekonomikorako agentziaren buru, oso zabalduta dago Euskal Herri autonomikoan hain ezagunak ditugun ate-erroten moda. Oraingo ahaleginean buruzagiak Hokitikiko herritarrei, lasaitu asmoz, erakutsi zien “bideo luze bat Espainiako Mallorca uhartean dagoen errauste planta bati buruz, esanaz milioika turista biltzen dituela urtero. Jende artean algarak entzun ziren esan zuenean Westland eskualdera ere erraustegiak turistak erakarriko zituela”.

Zeelanda Berriko irakurleen zoriorako, agintarien informazioak bere aldetik kontrastatzea maite duen kazetaria da Carroll eta astebete geroago plazaratu zuen “*Erraustegiaren sozio europarraren jabea txinatarra da*”, bil-





kura publikoan proiektuaren ardura-dunak esandakoak gezurtatuz. Gaia ikertzen hasita, Renew Energyko beste arduradun batek kazetariari aitortu behar izan zion Zeelanda Berriko erraustegia eraiki nahian ari den konpainia txinatarra Tianying (CNTY) dela, bilkura publikoan aipatu baina izendatu ez zuten sozioa Urbaser dela, egia dela Tianying dela orain Urbaserren jabea eta Hokitikiko jendeak konbentzitu nahian erakutsitako bideoako erraustegia –Mallorkakoa– Urbaserrena dela. Propagandazko bideoaren jabeenganaino iritsi zen Carroll eta hauek aitortu zioten egia: “Tirme konpainiako bozeramaile batek esan digu urtean 12.000 bisitari hartzen dituztela beren Ingurumen Heziketa eta Informaziorako Zen-

troan, baina gehienak umeak eta inguruko jendeak direla”.

Gipuzkoan laster beren Bertso Txapelketan parte hartu behar duten gai-jartzaile eta koblakariak balukete hari honi tiraka zeri kantatua.

Real Madridedeko presidente Florentino Perezena zen eta gaur jabea Tianying txinatarra duen Urbaser multinazionala ezaguna da Euskal Herrian: Zuberoa, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Gipuzkoako hiri hondakin guztien kudeaketa berari utzia daukate lurralde horietako agintariak, bereak ditu urte luzeetarako Baionako Canopia TMBa-azken errefusak erraustegira bidaltzen dituenak eta Zubietako erraustegia –agintariak Balorizazio Energetiko Planta deitua–, Gipuzkoako Ingurumen

Gunean kokatua; bertan ariko da Klima Aldaketaren Gipuzkoako Fundazioa ere, eta hondakinak erretzen dituen konstortzioa deitzen da Ekondakin Energia y Medio Ambiente S.A. Westlandeko herritarrek bideoz ezagutu zuten Mallorkako erraustegia –%80 Urbaser, %20 FCC– deitzen da Parque de Tecnologías Ambientales.

Izenok nabarmentzen dutenez, erraustegien bai finantzaketa eta bai justifikazioa oinarritzen da ustez hondakinen beste kudeaketa ereduak baino –funtsean, zabortegetietan lurperatzea baino– hobeak direlako argudioan. Hasteko, lortu dute beren jardueraren izena aldatzea: munduko hedabide nagusietan gutxitan aurkituko duzu *incineration* edo *incinerator* hitzik: ho-

rien lekuan *Waste-to-Energy* (WtE) eta *Waste-to-energyplant*. Eta lehen horien dohainen artean azpimarratzen baldin baziren erretzearen garbitasuna, merketasuna, berriztagarri izatea, geroztik erregaien, energiaren eta erraustekaren lobbya egin da ekonomia zirkular kontzeptuaren jabe... klimaren aldaketari aurre egiten txapeldunak beraiek direla defenditzeraino.

Oinezko herritarrentzako ingurumenaren endekatzea eta klima aldaketa kezka iturri diren moduan, korporazio handiontzat –tartean, hondakinen kudeaketa publikoa mundu osoan kontrolatzen duten konpainia pribatuontzat– ingurumena eta klima beren irudia garbitzeko tresna bilakatu dira, ikusi besterik ez da biltzar zientifikoz moztututako zenbat public relations operazio antolatu eta finantzatzen duten. Euskal Herrian, zortzi hilabetetan nazioarteko bi handi: martxoan Donostian *Change the Change* burutu zuten eta urri-rako iragarrita dago ISWA 2019 Bilbon.

KARBONO KONTAKETAN

“Circular Economy: What are you doing?” (Ekonomia zirkularra: eta zu zertan ari zara?) goiburu dutela, urriaren 7tik 9ra bilduko dira hondakinen kudeaketan ari diren konpainia nagusiak ISWA patronalak egingo duen mundu biltzarrean, alor horretako ugazaba espainiarrean, alor horretako ugazaba espainiarrean. Horra hurbileko omen dira planeta osotik etorritako hondakinen kudeaketako profesionalak, politikariak, industriako liderrak, planifikazio arduradunak, zientzialariak eta profesional gazteak, orotara 1.200.

Espainiako eta EAeko erakunde nagusiak dira Bilboko *event* honen babesle, IHOBE eta GHK konpainia publikoekin batera, eta babesleen artean, diru gehiena jartzeagatik *silver sponsor* tituluz agertzen da...Urbaser. Esan nahi baita, Tianying.

Hona Bilbon bilduko diren 1.200 bertsolariak ISWak hasieratik jarri dien puntua: “Egitarau zientifikoak aztertuko ditu hondakinen kudeaketa jasagarria, ekonomia zirkularra, baliabideen erabilpena (...) hondakinen murrizketa, prebentzioa, berrerabiltze eta birziklatzea, klimaren aldaketa...”.

Izan ere, erraustegien patronalak aldarrikatzen du asko lagun dezakeela klimaren zoratzea gelditzeko ahalginean, zaborrak errez. Europako erraustegien elkartearen 2018ko agi-



TXINAN ERRAUSTEGI-TURISMOA EGITEN

WESTLANDEKO (ZEELANDA BERRIA) AGINTARIAK ETA TIANYING KORPORAZIOKO ARDURADUNAK HAGAN, HIRIAN HAUEK DUTEN ERRAUSTEGIA BISITATZEN.

ri nagusietako batek dio izenburutik: *“Erraustekak laguntzen dio Europar Batasunaren negutegi gasen murrizketarako epe luzeko estrategiari”*.

TWh (TeraWatt/orduko) eta ur berotan berreskuratzen dituzten 90 TWh kontatuz, 50 milioi tona CO2 aurrezten dizkiotela klimari, hondakinok erreko ez

balituzte 50 milioi tona atzeritik erregai ekarri eta kontsumitu beharko lituzketelako. Eta teknologia egokiak erabiliz, erraustegiekin balio dezaketela etxebizitzak berotzeko bezala hozteko ere. Antzera mintzo dira AEBetan ere.

“Hori kontabilitate irudimentsua egitea da” egin die arrapostu

Energy Justice gobernuz kanpoko erakundeak Zaborren errausteketa eta klima aldaketa dossierrean. *“Errausteketa izugarri txarra da klimarentzako, ikatzezko zentral batek isurtzen duen CO2-a bider 2,5 isurtzen du argindar kopuru bera lortzeko. (...) Garrantzitsua da ohartzea kontabilitatean dauden trukez. Ondo alderatuz gero erraustegietako tximiniek isurtzen dituzten CO2 kopuruak beste kutsadura iturrienekin, bistakoa da errausteketa dela txarrena”*. Zertan datza trukuak?

Hasteko, erraustegien isurietan ez dute kontabilizatzen CO2 biogenikoa, landare edo animalietatik eratorritako hondakinak erraustekak eragindakoa: paperak, elikagaien soberakinak, egurra, larrua... Nahiz eta horiek osatzen duten hiri hondakinen ia erdia.



ERRAUSTEGIEN PATRONALAREN BILTZARRA

“EKONOMIA ZIRKULARRA: ETA ZU ZERTAN ARI ZARA?” DIO BILBOKO BILTZARRAREN LELOAK.

Enpresa hauen kontabilitatean, azken urteotan gutxitu egin dira hondakinen kudeaketak eragindako negutegi gasen isuriak, gehiago birziklatu, lurpeko zabortegietara gutxiago eraman eta gehiago errausten omen delako. Horregatik proposatzen dute orain arteko bidean sakontzea, zeren eta “lor daiteke urtean 175 milioi tona CO2 gehiago murriztea –Holandak erregai fosilak kiskaliz isurtzen duen CO2 guztia adina–, baldin oraindik lurperatzen ditugun zaborrak eramaten baditugu hondakinen hierarkian gorago dauden sistemetara”, esan nahi baita, erraustegietara.

Dio patronalak erraustegiekin gaur egun argindarretan sortzen dituzten 39



Aldiz, aurreztutako CO2 kopuruetan gehitzen dituzte erre gabe lurperatze-
ra eramanez gero hondakinok sortuko
luketen metanoa, kontutan hartu gabe
badirela isuriok murrizteko alternati-
bak, Zero Zabor eredueta ari direnek
erakutsi duten moduan.

Hirugarren manipulazioa, dio Energy
Justicek, "zenbatu gabe uzten dituzte

errautegietan energia sortu ahal iza-
teko erabiltzen dituzten erregai fosilen
isuriak". Hori Euskal Herrian garbi do-
kumentatuta dauka Gorka Bueno ira-
kasleak Zabalgarbik erretako gas natu-
rala aztertuta. Kontabilitatetik kanpo
geratzen dira ere labeetatik ateratako
zepa edo eskorietako metalen birzikla-
tzearen isuriak, azken errefusak zabor-

KOMUNIKAZIO KANPAINAN ETEN GABE

TIRME KONPAINIAREN IRUDIETAN, HAURRAK
MALLORKAKO ERRAUSTEGIA EZAGUTZEN:
ERAKUSKETA GIDATUAK, JOLAS DIDAKTIKOAK...
ETA INGURUMEN TEKNOLOGIEN PARKEA AIRETIK
ERAKUSTEN DUEN TREN FUTURISTA.

tegietaraino eramateko garraioenak,
eta abar.

Energy Justicek AEBetan bezala, Eu-
ropan Erresuma Batua Erraustekarik
Gabe (UKWIN) koalizioak aurtan ber-
tan argitaratu du eguneratuta hondaki-
nak kudeatzeko teknologia honek Bri-
tainia Handian klima aldetik dauzkan
eraginen azterketa. Agirian dio: "Hon-
dakinaren industria saltzen ari da erraus-
keta soluzio bat dela klimaren aldaketa-
rentzako, baina datuek erakusten dute
errausketa berez klimaren arazoaren
parte dela".

UKWINEk garrantzia berezia ema-
ten dio plastikoen erreketeri. Haste-
ko, ez direlako karbono isuriaren or-
daintze sisteman sartzen, nahiz eta
plastikoak erregai fosiletik eratorriak
izan: "Erraustegiak ez dira sartzen erre-
gai fosilen erabilera gutxitu eta CO2 isu-
riak murrizteko antolatuta dagoen kon-
pentsazio sisteman eta, ondorioz, urte
asko daramate ordaindu gabe negutegi
gas arriskutsuak isuriz gizarteari era-
gindako kalteen ordaina". Eta bestetik,
plastikoak erretzea argindarra sortzeko
modu oso ez-efizientea delako.

Irailaren 27rako dago deituta mun-
du osoan klimaren aldeko mobilizazio
handi bat, Euskal Herrian ere zenbait
mugimendu eragingo dituen. Horietan
asko ala gutxi aipatuko ote dute Lurra
planetako kliman errauste plantek dau-
katen eragina? ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Mikel Paredes

BESTE ZER ESANIK EZ DA, 'TXIKIREN ANAIA' ESANIK



HAIN DIRA BURUMOTZAK, EZ DAKITE ZER DEN IDEALISMOA, EZ ASKATASUN EGARRIA



1975eko irailak 27. Franco hilzorian, Juan Carlos I.a Borboikoa ordezkotzatua izendatua ordurako. Bost fusilatu: *Txiki*, Otaegi, Sánchez Bravo, Baena, García Sáenz. Jon Paredes Manot *Txiki*-ren anaia da Mikel. Begietara begira-begira zuela fusilatu zioten anaia Bartzelonako Cerdanyolan.



MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Anaia nola fusilatu zizuten ikusi zenuen.

Bai. Niregandik hamar metrora zegoela. 23 urte nituen, eta 21 Jonek. Mukizu bat zen, esaterako. Hortxe ageri da argazkietan. Gazte, eta idealista, idealismoa baitzen garai hartan herri honetan geneukan gauzarik inportanteena, injustizia zaparradari kontra egiteko modu bakarra. Isilpeko borrokan hasten zen jendeak bazekien, kontziente zen, egun batean libre zela, baina biharamunean preso zitekeela. Jende mordoa lotu zitzaion borrokari, batzuen izenak agertu dira, beste batzuenak ez; batzuk atxilotu zituzten, beste batzuk ez, zorionez. Eta nik, orduan bezalaxe pentsatzen dut orain, herri honen alde saiatu behar dugula. Jakina, orain ez ditut 23 urte, 67 baizik, bizi-eskarmentua dut, jende asko

ezagutu dut. Horietako batzuek, bere burua *Superman*-tzat daukate, edo aiatola balira bezala jokatzeko ohitura dute...

Jende mordoa lotu zitzaion borrokari. Tartean, Jon; tartean, zu zeu.

Era batera eta bestera borrokatu naiz garai hartatik hona. Inoiz ez dut ezer esan, Glencree arte [euskal gatazkaren bake prozesuan hainbat biktimek topaketak egin zituzten justizia, memoria eta elkarbizitza bultzatzeko]. Glencreen parte hartzeko eskatu zidatenean, zerbait egin behar zela pentsatu nuen, eta nahiz eta batzuek ez zuten begi onez ikusi nire parte-hartzea, parte hartu nuen. Zerbait egin beharra zegoela uste nuen, egiazko boteretik ez dugulako, Gasteizko boterea ez delako Madrilek maileguan utzitakoa besterik: "Gaur eman, bihar kendu". Go-

gotik saiatu behar dugu jendea geureganatzen, gehiengo handia osatzen, eta, gehiengoarekin, Madrilera joan eta esaten: "Egin guri kasu, edo ez ikustekoak ikusiko dituzue!"

Katalanen modura, esan nahi duzu?

Katalanen modura, baina goxoago. Eta, beti, bortxarik gabe. Bortxa bidez ezinezkoa da. Askoz ere beldur handiagoa diot Estatuaren bortxari, Katalunian nahiz Euskal Herrian eratu litekeen ezein mugimendu bortxazkori baino, Estatua gai baita beste GAL bat, edo bi, muntatzeko, lehen egin zuen moduan, eta gainera, "zilegitasun" osoz. Zer zilegitasun, ordea? Guk ez dugu hitza besterik, zintzo agertu behar dugu Europaren aurrean, herri bezala aitor gaitzaten. Katalanek ere hortik jo beharko luketela uste dut.



Mikel Paredes anaiaren hilobian. Fusilatu bezperan Txikik Che Guevararen poema baten bertsoa idatzi zuen: Mañana cuando yo muera / no me vengáis a llorar / Nunca estaré bajo tierra / soy viento de libertad.

Jon buru-belarri sartu zen borrokan, sartu zen ETAn. Eta zu?

Anaia nagusia zinen.

Ni ez nintzen sartu.

“Ez zinen sartu”... Nola sartu zen Jon?

Giroak horretaratuta. Injustizia zen orduko justizia. Jonek, bere kuadrillan bertan zenbait jende zer edo zertan zebilela ikusi zuen, eta berak ere bide hartatik jotzea erabaki zuen. Herrian zenbait talde osatu zituzten, eta talde haiek zein bere aldetik zebiltzan, loturarik gabe. Talde bat erortzen zenean, hiruzpalau harrapatzen zituzten, ez beste inor. Horrelaxe hasi zen Jon. Egun batean, ezkutatu egin zen, eta handik urtebetera harrapatu zuten.

Nola jakin zenuten ezkutatu zela?

Guardia zibila Jonen bila etxera etorri zi-

tzaigunean. “Non da zure semea?”, galde-tu zioten gure amari. Eta ama harri-harri: “Kanpin egitera joan da”. Baita zera ere! 1974an, ETak [Luis] Gómez Acebo [Pilar Borboikoaren senarra] bahitzeko asmoa hartu zuen gogoan, ordainetan Espainia-ko kartzeletako presoak aska zitzaizten. Komandoak jo eta su zebiltzan. Hiruzpalau komando Bartzelonara joan ziren, zein bere aldetik orduan ere, eta halako batean hantxe harrapatu zuten Jon.

Urte hartan [1975] ekainean-edo, Altsasun egon nintzen berarekin. Esan zidan: “Mikel, Perpinyà aldera noak, ez nauk puska batean ikusiko. Kontatuko diat handik itzultzean”. Nik ez nion besterik galdetu, jakitea ere ez zen-eta komeni. Guardia zibilek, edo poliziek, galdekatuz gero, ez dakizuna ere kontatzen hasten zara. Perpinyà aldera zihoala, itzulian

kontatuko zidala esan zidan, baina ez zen itzuli. Bartzelonan atxilotu zituztela irakurri genuen egunkarian. Astebete edo hamar egun eduki zuten. Gogotik torturatu zuten, ohi zutenez. Direnak eta ez direnak egin zizkieten, gainerako guzti-guztiei egin dietena, eta are amorru handiagoarekin Joni, ez zelako Euskal Herrian bertan jaioa, migratzaileen semea zelako. Horixe esan zidaten guardia zibilek Pirinioetan atxilotu nindutenean.

Noiz atxilotu zintuzten?

Jon fusilatu eta hilabetera edo. Anaia fusilatu zidatenean, Bartzelonatik Zarautza etorri bai, baina ez nintzen etxera sartu. Badaezpada ere. Lagun batzuen etxean hartu nuen aterpe. Hilabete egin nuen haiekin. Halako batean, mendira nindoa-la esan nien, Tolosako Oargi mendizale

Mikel Paredes Manot

ZALAMEA DE LA SERENA,
EXTREMADURA, ESPAINIA, 1952



Julen Lekuonaren kantua iduri, gurasoak eta zazpi senideko familia, zaharrena izan zen Mikel. Ondoren etorri ziren Jon, Guadalupe, Diego, Isabel, Kepa eta Perdi anai-arrebak. Jon galdu zuten, Txiki, eta hezur-mamiraino markatu du horrek sendia, oro har, eta Mikel bera, oroz gain. Glen Cree ekimenaren bigarren aldian parte hartu zuen 2008an. Hainbat ikastetxe eta unibertsitatetan izan da bere lekukotasuna eskaintzen. Hamai-ka neke eta pena, min eta arantzaz, berriz, nahiago ditu bere golgorako gorde.

elkartearen irtenaldia zen, Pirinioetara. Autobusean joan ginen. Jacatik gora, gelditu, autobusetik jaitsi eta oinez abiatu ginen mendian gora, eta orduan, guardia zibilak! Tiroka airera, gu denok geldiarazteko. Lurrean etzanarazi gintuzten. Identifikazioak eskatu, eta lau, atxilo hartu gintuzten. Poliziak fitxatuta ginduzkanak, nonbait. Ez nituen beste hirurak ezagutzen. Badakit, hala ere, haietako bat gor utzi zuten, kolpeka. Niri dagokidanez, guardia zibilek Jacatik Iruñera ekarri ninduten. Furgoian, betikoa: irainka eta joka eraso zidaten, anaiaren kontra gaizki esaka eta hau eta hura. Jon fusilatu eta hilabetera, baina haren kontra, hala ere. Eta niri, berriz, egurra. Haiek zartakoak! Iruñean, poliziaren esku utzi ninduten, eta Donostiara.

Donostiara, nora?

Gobernu zibilera. Gela txiki bat zen, kez bete. Haiek biribilean, eta ni batetik bestera bultzatzen nindutela, zartakoka. Halako batean, irten egin ziren gelatik, armairu baten gainean, bistara, pistola bat utzita. Ikusi nuen, ikusi nuenez. Ez dakit zer asmo zuten, nik arma hura hartzea-edo, nik arma eskuan nuela ni bertan akabatzeko-edo. Ordu erdiro, ziegatik gora, lixiba jo, eta behera. Lau egun eduki ninduten preso. Eta, gero, libre utzi ninduten.

Urte hartako urrian agertu zen albistea *Cambio 16* aldizkarian. Libre utzi ninduten, baina ez nintzen etxera itzuli. Donostia aldean gelditu nintzen.

Jon atxilotu eta gero, zer pauso eman zenituzten?

1975eko uztailaren amaieran atxilotu zuten. Lehenbizi, ohiko epaiketa egin behar ziotela esan zuten, banku lapurretaz akusatuta. Polizia baten hilketaren egile ere bera izan zela esan zuten, baina ez zen gauza argia. Garai bertsuan, beste bi polizia ere hil zituzten, Bartzelonan bata, Madrilen bestea, eta ohiko epaiketa zena, sumarisimo bihurtu zuten, gerra kontseilua, bai ETA eta bai FRAP egurrean zebiltzalako. Hainbat militante atxilotu zituzten, epaiketa gisakoak egin zituzten, eta batzuen eta besteen artean, hamaika heriotza zigor eman zituzten epaileek. European jendeak kontra egin

zion horri, protesta gogorrak izan ziren han eta hemen, eta azkenean, bost heriotza zigor erabaki zituzten. Tartean, Jonena. Diotenez, ez zelako Euskal Herrian jaioa, eta estatuan gainerako herrialdeetako kideak izutzeko asmotan. Hain dira burumotzak, ez dakite zer den idealismoa, ez askatasun egarria. Horrexegatik joan ziren Amerikara eta txikitu zituzten herri guztiak.

Marc Palmes eta Magda Oranich izan zenituzten abokatu.

Juan Mari Bandresen eta Miguel Castell-ekin ziguten bide hori. Esku bete lan zeukaten gainerako akusatuak defendatzen, eta Marcek eta Magdak hartu zuten Jonen defentsa Bartzelonan. Gogo onez, gainera. Gazte ziren eta oso gure aldekoak. Ama eta izeba Paulina Bartzelonara joan ziren eta han Pons Llovet familiaren etxean ostatatu ziren. Haien seme Josep Lluisen Segoviako ihesean parte hartu zuen. Ikaragarri lagundu zigun Pons Llovet familiak, ikaragarri. Jon



Hamar urte daramatza isilik ETak, eta hala ere, ez digute bakean uzten: benetako erabakiak hartzen, geure buruak benetan gobernatzen ez digute uzten”

hil eta gero ere, haien hobian sartuta eduki zuten gure anaiaren hilkutxa, iparraldeko hilerrian, ekartzea lortu genuen arte.

Ama epaiketan egon zen.

Bai, pantomima hutsa. Orduan ere ikusi zuen Jon.

Tortura zantzuak ikusi zizkiola zioen zuen amak, muxu ematera hurreratu eta ubelduak ikusi zizkiola.

Bai. Epaiketa eguneko kontua da hori. Denetarik egin zioten Joni: bainuontzia, zintzilik eduki zuten, era guztietako kolpeak jo, betiko mehatxuak egin... Ama eta izeba epaiketan egon ziren, eta gero itzuli egin ziren Zarautzera. Haiek etorri, eta ni joan nintzen, zer edo zertan saiatzera, justizia eske, injustiziaren erresuman. Epaia emanda zegoen, ez zen atzera itzulerarik. Jonek berak esan zidan gau-kaperan: “Hauek ez dute etsiko”. Beste gauza bat ere esan zidan gau-kaperan, torturaren kontura: “Zernahi esanarazi didate, baina ez dut lagunik salatu!”.

Nor eta nor zineten gau-kaperan?

Marc [Palmes], Magda [Oranich], Coronado kapitaina, zeina baitzen armadaren ofizioko abokatua, zenbait fun-



Goian, omenaldia Txiki eta Otaegiri Andoainen, 1978ko irailaren 9an. Behean, Donostian urte berean, manifestazioa Txiki eta Otaegi omentzeko.

tzionario, eta besteren bat. Bukaerarik gabeko gaua izan zedin nahiko nukeen, baina arin igaro zen. Kontu kontari eman genuen gaua, txorakeriak esaten, ondoren zetorrena saihestu nahian bezala. Horretan ari ginen arren, nik ezin nuen egunsentia burutik kendu. Aldiz, Jon bera lasai zegoen. Ez dakit heriotzaz jabetzen zen, ez dakit neu ere jabetuko ote nintzatekeen, edo ez dakit besterik gabe benetan jabetuta zegoen eta aurre-eragiteko prest zegoen. Ez dakit.

Eguna argitu zuen.

Eta Modelo kartzelatik irten ginen, Diagonaletik barrena, guardia zibilez eta polizia inguratuta. Izugarria. Katalanak berak ere izutu nahi zituztela uste dut. Handik bost kilometrora, Cerdanyola, hantxe hilerria, eta hantxe basoa, Espainiako armadarena, nonbait. Tarte batean basoa xahutu, zabaldu txiki bat egin eta, hantxe erdian jarri zuten

Jon. Gurutze Gorriaren anbulantzia ere han zen, kartzelako furgioarekin batera. Dena prest izan zutenean, igo ginen zabaldu hartara abokatuak, ni neu... Hantxe zegoen Jon, lotuta. Ikusi ninduen orduko, *Eusko gudariak* kantatzen hasi zen. Inguruko basoan, berriz, oihuak aditzen ziren: "Txikiiiiii.....!!! Txikiiiiii.....!!! Gora Euskadiiiiiii!!!"... Baina fusilatu zuten. Eta abokatuak heldu ez banindute, guardietako bati fusila kendu eta tiroka erasoko niekeen. Zakur seme haietako bat hasi zen esanez: "Honek ez dik tiro gehiago tiratuko!"

Bartzelonako militante jendea oihuka basoan.

Bai. Jakina, kontrol mordoa jarri zituzten, alderdi hartara sartzea galazaz zieten, baina haien oihuak heldu zitzaizkigun. Gero, kontrolak gaingitu eta hilerriraino sartu zen jende hura. Han, azken agurra eman nahi izan ge-



GUARDIA ZIBILAK

"Behin baino gehiagotan joan behar izan dut Zarauzko guardia zibilen kuartelera, udaltzain lanak horretaratuta. Tarteetan, jende 'normalarekin' tratatu dut han. Beste batzuetan, euskaldunoi eta euskal den edozeri amorrua dieten guardia zibilekin. Horiek ez ditut hemen nahi, ez guardia zibiletan, ez gainerako polizietan ere".

KONTATU

"Gazteek ez dakite gertatu zaiguna. Ikastetxe eta unibertsitateetara joan ohi naiz, gure historia kontatzera, Jonena eta gurea. Eta gazteak negar malkotan, hantxe, nire aurre-aurrean. Eta beti esaten diet: 'Egin gure herriaren alde, baina bortxarik gabe. Erabili burua, herri honetan argiak gara-eta. Erabili burua, osatu gehiengoak, gauzatu gure asmoak'. Inportantea da historia kontatzea, historia bat bera, nork bere ikuspegitik".

Azken hitza HILARRIA

"Eta behar dudan denbora baino lehen hiltzen banaute nere hortzetan itzaliko den azken antzia beste batenetan loratuko den lehen irria izango da."

(Joxean Artzeren 'Nahiz eta heriotza' poema zatia, Jon Paredes Manoten hilarrian)

nion Joni, eta hilkutxa zabaldu genuen. Orduantxe atera zuen Marcek [Palmas] Jonen argazkia, gorpu zela, kamera txiki



1977ko irailaren 27an Txikiren gorpua panteoi berrira aldatu zuten.

batekin. Baten batek ikusi-edo, eta irteeran poliziak kendu egin zion kamera Marci, baina ordurako gordea zeukan barruko erroilua. Jende emana hilerrian. Eta arratsaldean berdin. Hileta-meza egin zuten, eta gero, protesta gogorra. Oso oroitzapen ona daukat katalanena, eta berdin zait zein zen haien bandera, injustiziaren aurrean ez baitago alde bateko edo besteko banderarik.

Jon fusilatzen zutela ikusi zenuen. Zertan da trauma?

Hortxe. Nekez gainditzen da. Inoiz ez dago ahazterik. Ez geunden gerran, ezta? Eta, aldiz, gerran bageunde bezala hil zuten Jon... Horrek zer pentsa ematen dizu: horretarako gauza baldin badira, zer ez ote dute egingo hurrengo batean? Oraintxe, hamar urte daramatza isilik ETak, eta hala ere, ez digute bakean uzten: benetako erabakiak hartzen, geure buruak benetan gobernatzen ez digute uzten.

Zenbateraino markatzen du horrek denak?

Erabat. Markatzen zaitu bizian, marka-

tzen zaitu lanean, markatzen zaitu de-nean... Udaltzain izan nintzen, eta nire herriaren alde saiatu nintzen beti. Batzuek, zenbait aiatolak, ez zuten ulertu ni garai hartan udaltzain sartzea, zein izan ziren nire arrazoiak. Eta, aldiz, udaltzain jantzita ere guardia zibilen kuartelean atxilotuta egotea ere gertatu zait, sasoi latz haietan manifestazio bat babesteagatik. Orain ez, orain nahitaez joan behar dute udaltzainek manifestazioak babesten.

Zertan zenuten antza Jonek eta zuk?

Ni bera baino bi urte zaharragoa nintzen, bera baino serioagoa, hura ni baino beroagoa zen. Nabarmena zen. Errieta egiten nion: "Jon, erori egingo haiz, harrrapatu egingo haute, ez duk segundoa ere iraungo!". Eta ez zuen segundorik iraun. Ez zidan kasurik egin. Baina, tira, beharbada horri esker nago ni oraindik hemen.

Hainbestean, gauza asko kontatu dizkiguzu, Mikel. Baina zenbat gorde dizkiguzu?

Askoz gehiago... ●

Gipuzkoako
 Bertsolari Txapelketa
 2019

Irailak
28
17:00
Zumarraga-
Urretxu.

Nerea Elustondo Plazaola
Eli Pagola Apezetxea
Mikel Tapia Aierbe
Iñigo Izagirre Urteaga
Unai Mendizabal Jauregi
Iker Ormazabal Ojeda

Aurkezlea: Iker Iriarte Iribar

Irailak
29
17:00
Elgoibar. Herriko Antzokia

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Unai Gaztelumendi Arandia
Endika Igartzabal Murua
Jokin Uranga Isuskiza
Ane Labaka Mayoza
Eñaut Martikorena Lizaso

Aurkezlea: Ane Ezanarro Beristain

Antolatzailea

www.bertsotzale.eus

Laguntzailea



Iritziak

Motelaldi ekonomikoa badator berriro



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Oraindik ez dira osatu 2008an hasi zen krisialdiaren zauriak eta, berriro, planetako ertz guztietatik motelaldi berri baten ezkila hotsak entzuten ari gara. Horrela diote aldizkari espezializatuek, datu ekonomikoek, baita hartzen ari diren zenbait neurri ekonomikok ere, ekonomia larrialdira doala aurreikusten baita. Zalantzarik gabe, euskal ekonomiak ere ondorio horiek jasango ditu.

Hasteko, geure inguruko ekonomia-aren motorra den Alemania, ofizialki, krisialdian sartzeko egoeran dago. Hori konfirmatzeko hil honen amaieran egingo den hiruhileko hazkunde tasa negatiboa izatea nahikoa izango da eta orain arteko adierazgarriek alemaniar ekonomia ildo horretan sartuta dagoela erakusten dute. Egoera horrek euskal ekonomia atzetik eramango du, autogintzarekin lotutako enpresa asko baitaude geure artean: ez ahaztu Volkswagenek eta Mercedesek faktoria handiak dituztela gure artean, non zuzenean langile ugari dauzkaten kontratatuta, gehituta zeharkako enplegua.

Beste krisialditan ez bezala, Alemaniakoak baditu ohiko zergatiaz gain, beste zenbait erantsi behar zaizkionak. Izan ere, kontuan izan behar dugu 2004an ezarri zuen eredu ekonomikoa agortu egin dela: kalitate handiko industria produktuen esportazioa (autoak, makineria eta abar). Modu horretan, batik bat Europako periferiara, Txinara, Erresuma

AEBren hegemonia, batik bat ekonomikoa, auzitan jartzen ari da eta Txina, emeki-emeki, hurbiltzen ari zaio, EBk atzerapausoak ematen dituen bitartean, nahiz Alemaniak, hala moduan bada ere, bere protagonismo industrialari oraindik eusten dion

Batura eta AEBetara erruz esportatu du eta bere merkatal balantzeak superabitate izan ditu, BPGren %7ra iritsi arte. Ikaragarria. Bitartean, bertako merkatua ez dute sustatu behar adina, hori baita politika merkantilistak erakusten duena: herrialde batek aberastu nahi badu, kanpo balantzeak positiboak izanda lortuko du. Hori izan da, hain zuzen, Alemaniaren politika, nahiz horrek EBren periferiako ekonomiak sakonki kaltetu dituen azken hamarkada honetan.

Horrez gain, AEBen muga zergak direla-eta edo Txina autogintzan ematen ari den aurrerapena dela-eta, batik bat auto elektrikoan, eragin negatiboa izaten ari da Alemaniako autogintza boteretsuan.

Izan ere, Txina apustu sendoa egiten ari da etorkizuneko auto elektrikoan mundu lidergoa eskuratze aldera. Oro har, alemaniar auto industriarentzat ez da batere baikorra izango, are okerrago, Britania Handiko merkatua ere murrizten bazaio *Brexit*-a gauzatzen denean.

Lotura ekonomiko horiek areagotu dira ekonomia globalizatu den heinean eta oraingo kasuan munduko ekonomia-aren lidergoa ere jokoan sartu da. AEBen hegemonia, batik bat ekonomikoa, auzitan jartzen ari da eta Txina, emeki-emeki, hurbiltzen ari zaio, EBk atzerapausoak ematen dituen bitartean, nahiz Alemaniak, hala moduan bada ere, bere protagonismo industrialari oraindik eusten dion. Beraz, bi inperioen arteko gatazka gogor batean kokatuta gaude eta europarrak ahultzen jarraitzen dugu; euskaldunok ere galdi horretan bidaiatzen dugu.

Eta gerora zer? Oraindik hor daude 2008an hasitako krisialdi gordinaren zauriak: langabezia tasa garaiak, enplegu prekarioa, soldaten arteko arrakala, etxebizitzaren prezio eta alokairu jasanekin, zerbitzu sozialen murrizketak (osasuna, hezkuntza, menpekotasuna...), pentsio publikoen auzia, ikerketarako inbertsio gastuen eskasia, eta abar luze bat. Krisialdi horretatik irteteko estatuek bitartekoak badituzte, baina krisi sortzaile-sustatzaileak zigortu orde, saritu egin dituzte. Ea politika oker hau oraingo honetan iraultzen dugun! ●

Zahartzen utzi



MAIALEN
BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Merkatuan edo zer eros daitekeen mundu zoragarri honetan (umeak ere bai, alajaina), bada zimurren kontrako krema bat 26 urtetik gorakoentzat. Ikusiko zenuen iragarkia agian. Eta gogora etorriko zitzaizun, beharbada, zer esan zuen behin Arantxa Urretabizkaia Goizalde Landabasoren galderei erantzunez 111 Akademiaren Kilkerren Soka egitasmoaren barruan: “Uste dut gizarte honek zahartzaroa gorroto duela, baina nik, ez. Are gehiago, patetikoa iruditzen zait itxura gazteagoa izatearekin daukagun obsesioa. Zuk edozeini esaten diozu gazteago dirudiela eta sekulako ilusioa egiten dio, berdin-berdin 30 edo 60 urte baditu ere”.

Zuriak neutro gara, eta gainerako guztiak, *beste*. Gizonak neutro dira, eta gainerakook, *beste*. Eta adin-kontuetan? Adin-kontuetan, helduak dira (gara?) neutro, eta gainerako guztiak, jakina, *beste*. Eta besteetan besteenak, zaharrak: produktibitatearen hazkunde atergabea amets hezetzat daukan gizarte honetako lasta ustez pasibo hori. Enbarazua dira zaharrak, destorbua. “Zaharra da eta hil bedi, ez ditu balio lau zuri”, dio esaera zaharrak. Baina zer zahar eta zer zahar-ondo,

gaur egun zahar hitza bera tabu bilakatzeraino zabartu gara eta!: *heldu* eta *gazte* hitzak laudorio dira, bai, eta inori *zahar* esatea, aldiz, edukazio txarrekoa; *adineko* hitza erabili behar beti, edo *edadetu*. Are, *Hirugarren Mundu* izendapen supremazista asmatu genuen bezala asmatu dugu *hirugarren adin* eufemismo pozoitsua ere. Hirugarrena beti azkenputz.

Bestetutako kolektibo guztiekin egiten den bezala, klizez ihartzen ditugu zaharrak, eta topikoz sinpletzen: ahultasunaren topikoa egozten diegu, eta jakinduriarena ere bai, onkeriaz; ez balego bezala zahar indartsu eta kementsurik, edo zahar tontorik. Azken batean, homogeneizazioa da inori gizatasuna eta norbanakotasuna ezabatzeko modurik eraginkorrenetako bat. Gazte eta heldu gehienok, seguruenera, ia zipitzik ere ez dakigu zer den zaharra izatea, baina askojakin betetzen zaigu ahoa, “amonaren kroketak” gora eta “aitonaren jenioa” behera, idealizazioz zein displizentziaz. Ez zuen alferrik idatzi James Barriek (nahiz eta gehienek Oscar Wilderi egozten dioten esaldia): “Ez naiz guztia jakiteko bezain gaztea”.

Carpe diem absolutuaren aroan gaudede, orainak bizi gaitu, eta, hori dela kau-

sa edo hori dela ondorio, zahartzaroak *memento mori* baino ez digu ekartzen, antza, gogora: etorkizunik gabeko etorkizun beltza. Iraganari bizkarra emanda bizi omen gara, eta horregatik dabilta batzuk memoria historikoaren aldarria hedatu nahian, gogoan izan dezagun nondik gatozen, berriro egin ditzagun ondo eginak eta eragotz ditzagun hutseginak. Ahaztu, ordea, etorkizuna ahazten zaigu maizegi: etorkizunaren memoria falta zaigu, etorkizunerantzkoa; ondo bidean eta ezbeharrik ezean gizaki guztion patua den zahartzaro horretaz oroitzea. Eta, gure amnesia prospektiboan, hortxe dihardugu, betigazte zapuztu, *edadearen kontrako* ukenduak fabrikatzen eta kontsumitzen: geure buruaren kontrako kremak.

Ez geneukake sobran, beharbada, gogoan hartzea Simone de Beauvoirrek *La Vieillesse* (Zahartzaroa) saiakera mamiatsuan idatzitako hitz hauek: “Gure bizitzaren zentzua auzitan dago zain dugun etorkizun horretan; ezin jakin nor garen ez baldin badakigu nor izango garen: gizon zahar horrengan, andre zahar horrengan, aurki dezagun geure burua haiengan”. Edo, beste modu batean esanda, *memento senescere*. Zahartu, eta besteri ere lasai zahartzen utzi. ●



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
IRAKASLE
ETA IKERTZAILEA

Hautsia da coração

Gertuko norbait joaten denean, hiltzen denean alegia, gerta liteke gauza batzuk esan ez izanaren pena sentitzea. Guri gertuko pertsona bat joan zaigu duela gutxi, eta gauza batzuk esan ez izanaren damutxoak dut, baina pozik nago beste gauza batzuk esan egin nizkiolako.

Esan nion nire Joxe Ripiauren abestirik gustukoena *Kabilia hautsia da coração* dela, eta hark erantzun: “Bueno, Sorkunen koroak, badakizu...”. Ez dut uste apalke-riatan ari zenik. Testuko hizkuntzei buruz galdetu nion, itxuraz euskara, gaztelania, portugesa eta amazigera izan zitekeen zerbait nahastuta zeudela eta. Ez dut erantzuna ondo gogoratzen, baina hizkuntza hori erdi-asmatu egin zuela esango nuke.

Gasteizen bizi zenean bere etxera gonbidatu gintuen asteburu-pasa arreba eta biok, duela hogeit bat urte. Jimi Hendrixen koadro bat zuen paretan, aski leku pribilegiatuan. Sarrerako atea zeharkatzearekin batera aurkeztu zigun: *San Jimi!*. Anekdotak hori kontatu nion duela urte gutxi batzuk. Ez zuen gogoratzen, baina berretsi egin zuen Hendrixekiko miresmena: “Honbre, *San Jimi...*”.

Esan nion gure kanta bat Neguren *Sabel-hiztunaren ordu ikaragarria*-n oinarrituta dagoela. Lehenengo aldiz zuzenean jo genuenean agian pentsatuko zuen “nahi bai zuek...”, baina ez zen bere estiloa halakoak esatea.

Esan nion nire *anplia* nahi beste erabiltzeko, eta bere azken taldearekin dezente aprobetxatu zuen. Hark bere gitarra mitikoa utzia zidan lehenagotik, bueltatzeko baldintzarik gabe. Oso truke naturala izan zen, konfiantzazkoa, ia *despreokupatua*. Segur aski, hobeto pentsatuta, ez genuen truke terminotan pentsatu.

Hamar urte bete nituenean hartz txiki bat oparitu zidan berak pintatutako marra *blaugran*-arekin. Bazekien *ronaldozalea* nintzela, eta saltzaileari galdetu omen zion: “Aizu, Ronaldok non jokatzen du?”. Ez nion inoiz esan ea nola ausartu zen hori galdetzera. Ez zen oso futbolzalea, bistan da.

Nire arreba nagusia jaio eta gutxira sehaska-kanta bat konposatu zion, kasete batean egongo da hor nonbait grabatua. Ez nion esan, nahiz ia 30 urte izango diren ez dudala entzun, asko gogoratzen naizela abesti harekin, eta oso ederra iruditzen zitzaidala. *Lo, lo, lo, loa, Garazi...*”.

Ez nion esan izugarri estimatzen nuela, oso gustura egoten nintzela berekin. Sumatuko zuen, baina hitzetan jartzea ere ez zen sobera egongo. Ez nion esan zendu zenetik buklean ditudala bere dozenaka kanta buruan. Nahita ere ezin esan hori, baina esateko gauza polita izango zen, azken agur gisa. ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Normalidadea

Sasoi bateko etxekoandreek normalidadera itzultzeko gogo bizia izaten zuten opor-denboran. Etxekoak, firin-faran, urteko zereginak alde batera lagata, enbarazu baino ez ziren emakume hauendako. Gainera, senideak *dolce far niente* horretan zebiltzan bitartean, ama/amama hauek urteko jira bera zerabilten, baina mamorro astun batzuk ondoan zituztela: seme-alaba, senar, aita, osaba... Etxekoandreendako oporrik ez, lan bikoitza, sarri.

Normalidadea andre hauendako errutinaren alde goxoa zen, dena eta guztiak euren lekuetan, bakoitzari zegokiona egiten. Mundua ordenatuta izateko mo-

dua, unibertsoa etxetik ordenatzen hasten zelako.

Gaurko etxekoandreek agian ez dute hain gustuko normalidadea, mundua ordenatzeko era aldatu egin delako. Normalidadea, ordea, gure egunerokotasun aspergarria da, oporrek pasatutakoan berreskuratzen duguna, egokitze latza duena. Benetako bizitza, berba baten.

Errutina, egunerokotasuna izanagatik –edo izateagatik, hain zuzen–, txarto ikusita dago emozio gogorren bila dabilen gizartean. Baina errealitatea da, eta disfrutatzen ikasi behar dugu.

Beraz, normalidade on! ●

Ozeanoz bestalde



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Motxila bat eta lau trapu hartuta joan zinen munduaren beste puntara. Ozeanoz bestalde. Hila-bete zeneukan arnas berritzeko; hangoa deskubritu ahala hemengoaz ahazteko. Deskonektatzeko –hitzaren zentzurik zabalenean–.

Behin han zeundela, pare bat gau pasa zenituen haran sakon batean barneratuta, lau eguneko egonaldia egin zenuen oihanean galduta eta birikek utzi zizutenean lau mila metroko altuerara igo zinen inoiz ikusi dituzun paraje txundigarrietan barrena ibiltzeko. Abuztua nahikoa izan zitzaizun ikasurte osoan zehar begiak mugikorraren pantailari josi gabe igaro zenuen denbora apurra hirukoizteko.

Konexioa bilatu zenuen tarteka. Ahots ezagunek transmititzen zizuten oreka. Gertukoenen berri izateko, bidaia hasi zenuenean dagoeneko gaixo zegoen aitonaaren egoerak okerrera egin ez zuela baieztatzeko, inbidia kutsatu nahi zenion norbaiti argazkiren bat edo beste bidaltzeko. Dena ondo zegoela jakiteko, denak berdin jarraitzen zuela ziurtatzeko.

Konexioa zenuenero
beste eraso bat.
Eta beste bat.
Eta beste bat.
Udaro gertatzen da,
bazenekien.
Ez zintuen harritu.
Baina, behin distantzia
hartuta, ezberdin
ikusten dira gauzak

Denak berdin jarraitzen zuela eta Bilboko Etxebarria parkean 18 urteko emakume bat bortxatu zutela sei gizonen artean. Eta handik egun gutxira Donostiako Piratek egun osoko egitaraua bertan behera utzi behar izan zutela gau batez izandako eraso sexista guztiengatik. Eta hiri berean lanean ari zen emakumezko sorosle bat bortxatzen saiatu zirela beranduago. Eta Levanten gizon batek neska gazte baten abortua eragin zuela kolpeka. Eta gizon

bat atxilotu zutela Madrilgo treneko bagoietan mobilarekin 555 emakumeren irudiak grabatu ondoren webgune pornografikoetan eskegi zituelako. Eta Gasteizen 17 urteko gazte bat atxilotu zutela 6 urte soilik zituen lehengusina erasotzeagatik. Eta Bilbon bi urrutze agindu zituen gizon bat atxilotu zutela andre bat bost egunez bahitu, iraindu, jo eta bortxatzea egotzita. Eta Debaiko hormetan –beste zenbait aldarriren artean– feminismoaren aurkako margoketak agertu zirela. Eta Hondarribiko alkatea alarde ez-baztertzailearen ordutegia aldatzea beharrezkoa zela argudiatzen saiatu zela. Eta Larresoroko jaietan bortxatu zutela salatu zuela emakume batek.

Konexioa zenuenero beste eraso bat. Eta beste bat. Eta beste bat.

Udaro gertatzen da, bazenekien. Ez zintuen harritu. Baina, behin distantzia hartuta, ezberdin ikusten dira gauzak.

Eserrak itzulerako bidaian zortzi orduko eskala egin zenuen Mexikon; egun batzuk lehenago emakumeek kaleak hartu eta amorruez gainezka “nahikoa da” esan zuten tokian. ●

Euskarak ahotsa behar du

...uhinetan ere bai

#BilboHiriakBerea

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

lizentzia orain!

KRISI EKONOMIKO GLOBALA BERRIZ ESNATZEAR

Gero eta maizago ari gara entzuten munduko testuinguru ekonomikoak krisi berri baten seinaleak dakartzala. Prentsan, hedabideetan eta interneten barra-barra daude horren inguruko albisteak. Baina non jarri behar dugu arreta datorrenaz jabetzeko? Ekaitza iragartzen duten argi gorri batzuk ekarri ditugu hona.

 **URKO APAOLAZA AVILA**


AEBetako erreserba federalaren egoitza *FED up* liburu kritiko ezagunaren azalean. Bertan egosten dira munduko moneta politikak eta krisien hasierak.




Abuztuaren amaieran orrialdeotan idatzi genuen gero eta gertuago dugula “krisi ekonomikoaren hurrengo portua”. Izatez, *krisi* deitzen diogun koiunturazko gertaera hori ez da inondik inora jendearen bizitzatik joan, munduan hegemonikoa den kapitalismoaren estrukturari berrari erasaten ari baitzaio, baina fase berri batean sartzeaz gaudela dirudi. Ez dioguk, nazioarteko egunkari prestigiotsuetan ere ari dira alarma jotzen atzeraldi globala badatorrela ohartarazteko. Miarritzen G7 gailurra egiten ari ziren egun berean, Phillip Inman *The Guardian* egunkari britainiarreko ekonomia analista nagusietakoa denak zazpi zantzu kontatu zizkigun artikulu batean, hemen laburtuko ditugunak. Bere esanetan, munduko merkataritzaren “motorra” abisatzen ari zaigu hamar urteko “hedapenaren” ostean alderantzizko bidea hartu duela.

AEB-ETAKO INTERES TASAREN ZIKLO AMAIERA

AEBen eta Txinaren arteko muga-zergeren gorakada da zantzu nagusi horietako bat. Donald Trumpek presidentetzarako bere kanpaina “AEBak lehenengo!” esanez hasi zuen, eta altzairuaren inportazioari –tartean Euskal Herrikoa– %25eko muga-zergak ezarri zizkion. Batez ere Txina dauka jomugan Trumpek: gutxiago balio duen monetaz aprobetxatzea egozten dio eta hainbat produktu txinatarren inportazioari zergak igo dizkio. Yuana gehiago devaluatzea izan da Beijingen erantzuna. Zaila da gerra horren ondorioak neurtzea, baina herrialde gehienek merkataritzan beherakada sumatu dute jadanik.

Bestalde, zergak murrizteko Trumpen politikak AEBetan inflazioa igo eta ekarri du herrialde hartako banku zentralak –erreserba federalak– interes tasak ere hainbat aldiz igotzea azkenaldian.

Zorpetzearen garestitze horrek eta Txinarekin hasitako arantzelen gerrak AEBetako industria produkzioari eta kontsumo prezioei erasan die azkenean. 2019ko abuztuaren 1ean Jerome Powell erreserba federaletako presidenteak interes tasen jaitziera iragarri zuen, 2008tik lehen aldiz –irailaren 18an %0,25 gehiago jaitsi zituen–. Beste datu bat: General Motorseko 48.000 langileek grebara jo dute hitzarmen duin bat eskatzeko –azkeneko lanuztea duela hamabi urte egin zuten–; autogintza enpresak 15.000 langileri eragiten dien birmoldaketa hasi zuen 2018an.



GREBA HOTSAK. GENERAL MOTORS AUTOGINTZA ENPRESAKO MILAKA LANGILE GREBAN JARRI DIRA 2007AZ GEROZTIK LEHEN ALDIZ, HITZARMEN DUIN BAT ESKATZEKO. MUNDUKO MERKATAL EGOERAK AEB-ETAKO MANUFATURA PRODUKZIOARI ERASAN DIO AZKENEAN.

ALEMANIA ATZERALDI TEKNIKOAN


“Alemaniako ekonomiak seguruenik bizitasunik gabe jarraituko du 2019ko hirugarren hiruhilekoan. BPGak jaisten jarrai dezake”. Bundesbank-aren azken txostenean irakur daitekeen esaldi hori bonba bat bezala erori zen abuztuan. Alemaniako Barne Produktu Gordina %0,1 jaitsi zen aurreko hiruhilekoan eta bigarren aldiz jarraian jaitsiz gero, Europako *lokomotora* “atzeraldi teknikoan” sartuko litzateke ofizialki. Olaf Scholz finantza ministroak 50.000 milioi euroko inbertsioa hitzeman du pizgarri modura, baina ekonomista askoren aburuz berandu da atzeraldia saihesteko.

Industria produktuak esportatzen ditu Alemaniak –ikus 19. orrialdean Baleren Bakaikoaren analisia– eta besteak beste, *Brexit*-ak sorturiko urduritasuna izan omen da atzeraldiaren eragileetako bat. Erresuma Batua Europar Batasunetik akordiorik gabe irteten bada, komertzioari kalte handia egin diezaioke analista gehienek arabera –munduko seigarren ekonomia da–. Boris Johnsonek gehiengo parlamentarioaren kontra hasi duen borroka partikularrak, urriaren 31n *Brexit* gogor batekin ospa egin edo hauteskundeak aurreratzeko, ez du giroa batere lasaitu.

Global Justice Now erakunde altermundialistako zuzendari Nick Deardenek laino beltzak ikusi ditu *Red Pepper*



ALEMANIAKO BPG TASA



NEGATIBOAN. ALEMANIAKO EKONOMIA IKERKETETARAKO INSTITUTUAREN ARABERA HIRUGARREN HIRUHILEKOAN HAZKUNDE NEGATIBOA IZANGO DU ALEMANIAK BERRIZ ERE, ETA ATZERALDIAN SARTUKO DA OFIZIALKI.

ezkerreko aldezkarian idatzitako gutunean: “Johnson lehen ministro bihurtu den unetik, argiago dugu muturreko *Brexit*-a nolakoa izango den: AEBekin merkataritza akordio toxikoa, milioika migratzaileen kontrako ingurune bat eta merkatu librearen politikak jendar-teko eremu gero eta gehiagotara zabal-duta”. Bere ustez, Naomi Kleinek teoriza-tutako *shock doktrina*-ren beste adibide bat datorkigu, hau da, “hondamendi” batek sorturiko inpaktu psikologikoa aprobeixatuko du neoliberalismoak bes-te behin, erreforma antisozialak egiteko.

Gauzak horrela, ez begiratu Argen-tinako berankortasun edo *default*-a-ri, Hegoafrikako eta Turkiako egoera ekonomikoak piztu behar digu arreta, Inman *The Guardian*-eko kazetariaren arabera. Herrialde horiek askoz “inte-gratuago” daude nazioarteko merka-tuetan eta zorra ez ordaintzeak eragin handiagoa izango luke.


Turkiako lira ahul dago eta BPGa uz-kurtzen ari da etengabe. Halako sinto-mei etengabe begiratzen diote finantza espekulatzailak. Hala, inbertitzaileek AEBetako epe motzeko zor-tituluak erruz saldu dituzte azkenaldian –gau-za bera egin zuten 2008ko krisiaren aurretik-. Jokabide horrek lerro arris-kutsu bat marraztu du, AEBetako eko-nomia berandu baino lehen arazotan sar daitekeela erakusten duena: alderantzizko errendimendu-kurba.

ERRENDIMENDU-KURBA, ZER DA?

“Errendimendu-kurba”. 2008an arris-ku-saria zer zen ikasi genuen gisan, oraingoan kontzeptu hori zer den ere jakin beharko dugu, hurrengo krisi eko-nomikoaren jatorria ulertuko badugu. “Errendimendu-kurba”. Zer da? Alberto Garzón ekonomialariak Twitterrez azal-du du ahalik eta modu didaktikoenean, eta Gorka Bereziartuak ARGIAko web-gunera ekarri ditu azalpen horiek.

Errendimendu-kurbaren grafikoak erakusten du epe luzeko eta epe mo-tzeko tituluen interes tasak nola dau-den. Estatu batek tituluak enkantean jaulkitzen dituenean, erosle kopurua-ren arabera aldatzen da diru hori ja-sotzeagatik gero ordaindu behar duen interesa, “errendimendua” alegia. Or-duan eta erosle gehiago, errendimen-du txikiagoa. Eta alderantziz: erosle gutxiago, errendimendu handiagoa. Epe luzeko tituluen kasuan –hiru edo lau urtera itzuli beharreko bonuak adi-bidez– erosle gutxiago egon ohi dira,

AEB-ETAKO ERRENDIMENDU-KURBA



ALDERANTZIZ. AEB-ETAKO TITULUEN INTERES TASEK EPE MOTZ-ERTAINEN BEHERA EGIN DUTE ETA KURBAK AMILDEGI ITXURA HARTU DU.

denbora gehiago itxaron behar dute-lako interesak kobratzeko. Ondorioz, errendimendu-kurba positiboa izaten da, menditxo baten itxurarekin.

Aldiz, egoera ekonomiko latza iragar-tzen dutenean, inbertitzaileek nahiago dute herri aberatsenen epe luzeko titulu seguruagoetara jo eta kurba alderantziz jartzen da, amildegia baten traza hartuz. Momentu honetan hogeit hamar herrialdetan dago kurba alderantziz, baita AEBeta-koa ere. Garzónek gogorarazi duenez, “1955etik AEBetako kurba alderantziz jarri den aldiro atzeraldi ekonomikoa gertatu da. Batzuetan hilabeteak geroa-go, bestetan urtebete igarota”. Ekono-mialariaren arabera, horrela jarraituz gero AEBak krisi ekonomikoan sartuko dira epe motzean.

Azken hamar urteetan banku zen-tralek dirua doan eman diete finantza erakundeei eta askoren ustez horrek sorturiko burbuilan dago errendimen-du-kurba atrofiatu izanaren jatorria. Garzónen aburuz alferrik izango da go-bernuek diru gehiago txertatzea –Scholz ministroak Alemaniarentzat proposatu bezala– eta fiskalitatean dago gakoa. Aitzitik, onartu du badaudela ezkerreko ekonomialariak jadanik zerga-politikan ere sinesten ez dutenak, Michael Ro-berts kasu.

MICHAEL ROBERTS: “EZ DU FUNTZIONATUKO”

“Ez moneta malgutzeak, ezta zerga piz-garriek ere, ez dute lortuko datorren atzeraldia gelditzea”. Ondorio hori ate-ra du Michael Roberts ekonomialariak; eta marxista zaharrak badaki zertaz ari den, hogeita hamar urtez Londresko

219.000.000.000.000.000 €

MUNDUKO ZORRA

BURBUILA HANDI BAT. 2019KO LEHEN HIRUHILEKOAN HERRIALDE, ENPRESA ETA NORBANAKOEK MUNDUKO BPG-REN %320 ZUTEN PILATUTA ZORRETAN (219 BILIOI EURO). ANALISTA ASKOREN USTEZ HORI IZANGO DA LEHERTUKO DEN HURRENGO BURBUILA. CADTM ELKARTEAK SALATU DU NAZIOARTEKO DIRU FUNTSAK DOMINAZIO POLITIKORAKO ERABILTZEN DUELA HERRIALDE ASKOREN ZORRA ETA "KOLONIALISMO BERRIA" DEITU DIO.

Cityan lan egin izanak eman dion esperimentiaz baliatzen baita *The Next Recession* blogean idazteko.

Robertsek hainbat adierazle nabarmendu ditu alarma gorriak pizteko. Alde batetik, jakin berri dugu AEBetako manufaktura jardueraren indizearen (PMI, ingelesezko akronimoa) datuak txarrak izan direla. Enpresa esanguratsuei hileroko egiten zaien inkesta baten bidez lortzen da indize hori, ekonomia produktiboa nola doan jakiteko: 50 puntutik gora baldin badago, esan nahi du hedatzen ari dela, horren azpitik uzkuartzen ariko litzateke, eta 42 puntutik behera atzeraldian legoke. Bada, 2009tik lehen aldiz, AEBetako produkzioa 50etik behera jaitsi da.

AEBetako enpresei zuzenean loturiko beste datu bat ere azpimarratu du Robertsek: haien irabazi-marjina murrizten ari da inoiz baino denbora gehiagoan. Korporazioen etekinek oso maila altuan jarraitzen dute -2008ko krisiaren abagunea aprobeztatu baitzuten langileak gehiago zukutzeko-, baina azkeneko lau urte eta erdian irabazi-marjinak beheranzkoak izan dira, eta gerraostetik ez da halakorik sekula ikusi: "Errendimendu-kurba egunero begira daitekeen arren, agian ez da adierazle onena atzeraldia datorrela sumatzeko, baina etekinen beherakada, hori bai". Imajinatu dezakegu berriz ere zein sartuko duten zuku-makinan.

Egoerari buelta emateko, formula keynesiar ortodoxo zein heterodoxoak -bogan dagoen Diru Teoria Modernoa barne- antzuak izango direla uste du ekonomialariak (aurrekontuen defizita, gastu publikoa, pizgarri fiskalak...) eta Japonen adibidea eman du horretarako: hogeitau urte daramatza aurrekontuetan defizita izaten eta ez du lortu %1etik gorako hazkunderik. Robertsek kritika ugari jaso du halako ideienatik, baita ezkerreko burkideen aldetik ere, baina azkenekoak, ahoan bilorik gabe hitz egin du: "Kapitalismoa atzeraldi batetik irten daiteke, soilik atzeraldiarekin".

MUNDUKO ZORRA, INOIZKO HANDIENA

Lehman Brothersen hondamenditik hamarkada bat igarota, krisiaren ondorioez gurean idazterakoan (2.620 zk.), Mikel Zurbano ekonomialariak gogorazi zuen gaur egungo munduko zorrak 2007koa aise gainditzen duela eta Barne Produktu Gordina halako lau dela jadanik: "Duela hamar urteko eztanda errepika daiteke".

Zorrarena etengabe krisiarekin lotzen den gaia da: "Mundua kiebrara al doa?", "Munduko zorraren bolborategia", "Zorrek alarma guztiak piztu ditu", errepikatzen dute behin eta berriz he-

2008an krisia loarazi zuten banku zentralek dirua orfidala balitz bezala banatuz kiebran zeuden finantza erakundeei, eta produktu espekulatiboetara atea parez pare irekiz. Orain berriz esnatzeaz da eta imajinatu dezakegu zein sartuko duten zuku-makinan

dabideetako lerroburuek. Nazioarteko Diru Funtsak ere sarritan abertitu du hortaz, azkenekoa 2018ko abenduan, "errekorra" ondu genuela esanez: 161 bilioi euro. Baina ezin dugu ahaztu zorra nazioarteko finantza erakundeei erabiltzen duten arma boteretsua dela.

Eric Toussant zientzia politikoetako doktore eta CADTM Zor Ez-Legitimoen Aboliziorako Batzordearen bozeramaileak, zorra "kolonizazio berri baten antzeko" zerbaite dela dio. Miarritzeko

G7aren kontragailurrean izan zen hitzaldia ematen eta *Gara* egunkariko Arantxa Manterolaren galderei erantzunez azaldu du: "Mailegatzailuek lortu dute estatuak sartzea zor publikoaren engranajearen eta horri esker etekin ederrak ateratzen dituzte (...) Thatcher eta Reaganen garaitik estatuak behartuta daude zor duten dirua zor gehiagorik ordaintzera, herritarrekiko dituzten betebeharrei uko eginez".

Agerikoa da krisia lehertzekotan gehien zorpetutako lurraldeetako jendeak senperak ikusiko litzuketela, estatuek aukera gutxiago izango bailukete baliabideak lortzeko. Toussanten ustez posible da legitimoa ez den zorra bertan behera uztea, historiak erakutsi du nola Mexikon 1919an hala Islandian mende bat geroago, baina horretarako "herri-tarrak matxinatu behar dira eta gobernuak presionatu".

2008ko krisia loarazi zuten banku zentralek dirua orfidala balitz bezala banatuz kiebran zeuden finantza erakundeei, eta produktu espekulatiboetara atea parez pare zabalduz. Apuntatu beste hitz bat koaderno ekonomikorako: QE (*Quantitative Easing*). Horren bidez banku zentralek masiboki erosten dituzte finantza aktiboak, espekulazio negozio handietan dabilzanak salbatuz. Aldiz, Jeremy Corbyn laboristak aspaldi aldarrikatu zuen "herriaren QE bat", besteak beste zerbitzu sozialak finantzatzeko dituenak.

Baina Mario Dragui Europako Banku Zentraleko presidentek esan du -%0,4tik -%0,5era eramango duela bankuei euren dirua deposituan uzteagatik ordaintzen dien interes tasa -gehiago kobratuko diela alegia-, eta bestetik, hileroko bonutan 20.000 milioi euro zor publiko erosi duela Frankfurteko. Dirua, dirua, dirua. Krisia esnatzeaz da, eta ispilaren aurrean jartzeaz, kapitalismoaren benetako aurpegia ikusiko du beste behin. ●



Nazioarteko Diru Funtsak 75 urte Krisia ikusi al du?

1 944ko uztailaren 22an, duela 75 urte, Bretton Woodseko akordioa sinatu zuten Bigarren Mundu Gerra irabaztear ziren herrialde aliatuek. AEBetako New Hampshireko hotel hartan, Nazio Batuen Erakundeak munduko finantza harremanak ezarri zituen eta halaxe sortu ziren Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua, dolarra erreferentzia gisa hartuta. AEBetako boterea eta eragina nabarmenak izan ziren sorrera hartan eta erakunde horien bilakaera baldintzatu zuen horrek.

NDFren helburu nagusietakoa da zailtasun ekonomikoan dauden herrialdeei dirua uztea hainbat baldintzaren truke. Bere jokabidea oso kritikatu izan da, inposatzen dituen murrizketa planak oso gogorak direlako eta gastu sozialari bete-betean eragiten diolako. Behar gorrian dauden herrialdeak menpekoago egiteko, zorra erabiltzen du batez ere, eta politika neoliberalak ezartzeko berdin zaio diktadurak laguntzen baditu ere.

Eric Toussaintek (CADTM) "kolonialismo berria" deitzen dio horri. Bere liburuetan azpimarratu izan duenez, bai NDF-k bai Munduko Bankuak diktadurei emandako laguntza sistematikoa izan da, haien politike-tan zuzenean eragiteko asmoz: Somoza Nikaraguan, Pinochet Txilen, Mobutu Zairen... Paradoxikoki, Munduko Bankuko estatutuek espresuki debekatzen diote arlo politikoan esku hartzea: "Irizpide ekonomikoek baizik ezin dute bere erabakietan eragin".

Baina giza eskubideak urratzen dituzten erregimen politikoekin soilik ez, ekonomiaren gorabeherekin ere jolastu izan dute bi erakundeok, informazio nahasgarria nahita emanez. Hala egin zuen Mundu Bankuak

1982an Hego Ameriketako leherturiko krisiarekin. 60ko hamarkadan banku horrek askotan jaurti zituen zenbait herrialdeetako zorpetze handiagatik egon zitezkeen arazoenguruko abisuak. Baina Toussaintek dioenez, 1973ko petrolioaren prezioaren gorakadaren ondoren diskurtso bikoitza hasi zuen: alde batetik, publikoki "krisi" hitza erabiltzeari utzi eta are gehiago zorpetzera bultzatu zituen herrialdeok. Bestetik, barne memorandumetan aitortzen zuen asko "muturreko egoerara" iritsi zitezkeela maileguak ezin kitaturik. Alegia, bazekien krisia bazetorrela.

Nola azaldu Munduko Bankuaren jarrera hori? Petrolio esportatzaileek dirua barra-barra zuten 1973ko prezioen gorakadaren ondorioz eta beste herrialdeetako zorrean inbertitzen hasi ziren. Baina Toussainten ustez badago beste arrazoi bat: "Munduko Bankuak bere eragina handitu nahi izan zuen kapitalismoaren aldean zeuden ahalik eta herrialde gehienetan". Hortaz, 1978 eta 1981 urteen artean mailegaturiko dirua %100 handitu zen, 1982an krisia lehertu zen arte. Hala hasi zen Hego Ameriketako "hamarkada galdua" deitu izan dena, Mundu Bankuak eta NDF-k gidatuta.

Badago krisi hura 2008ko Atzeraldi Handiarekin alderatzen duenik. Duela hamarkada bat, NDF desprestigiaturiko dinosauro bat zen, baina finantzen paperezko gaztelua erori zenean, herrialde boteretsuek funts horren kata-narrua berriz gizentzea erabaki zuten, jarrai zezan beti egin duena egiten: xantaia ekonomikoaren bidez herritarrak estutu. Zer gertatuko da oraingoan? Ez dirudi NDFk dominaziorako abagune berri hau alferrik pasatzen utziko duenik, hala iraun baitu 75 urtez.



URRIAKO DOAKO JARDUERAK

Urriak 19 ORIO ARRAUN ELKARTEKO NESKAK

Egizu argazki bat aurtengo estropadetako irabazleekin eta traineruarekin.

Urriak 19 "ITSU MODUAN JOLASTEN"

Hype Station® gunean.

Hilabete guztia GRAN TURISMO

Hype Station® gunean.

Hilabete guztia "BOLANTEAN" ETA HALLOWEEN

Haurrentzako doako tailerra Kids Zone gunean.

Urriak 14tik 21era DINOSAURO ERAKUSKETA IKUSTEKO ZOZKETA

20 sarreraren zozketa gure Instagram-ean eta www.urbil.es-en.

ETA GAINERA...



**ETORRI URBILERA
ZURE BEHOBIA TXIKIKO
DORTSALA JASOTZERA!**



urbil.es



Hormak irudikatzen du herriaren aldarria

Bada horma bat Euskal Herrian, azken hiru urteotan pintura geruzaz geruza, izugarri loditu dena. Erdietan marroia, beste erdietan koloretsuagoa, denetarik irudikatzeko erabili baitute herritarrek kasik ehun aldiz. Otsailetik baina, Picassoren *Gernika* erakusten dio Zumaia. Hiru urteko jardunaren ondoren, hormak herriari indarra eman dio. Kalea Guztiona Da ekimena fruituak ematen hasi da.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  KALEA GUZTIONA DA

Abuztuak 29 egun ditu gaur, eta Zumaiaiko Erribera kaleko hormak, 98 mural ditu jada bata bestearen gainean margotuta. Gaur ere elkartu dira makina bat kide paretaren aurrean, irribarretsu eta betiko ilusio berarekin. Adine ez dira bereziki gazteak, baina ekinbidez bai; lanerako grinarekin, herriaren erdigunea koloreztatzeko asmoz. Gaurkoan ez dute, baina, 99. aldiz margotuko Erriberako horma, azken irudiak tinko eta garbi jarraitzen baitu bertan, aurreko guztiek ez bezala. Gaurkoan ia 900 gradutan jarriko dute labe industrial, hormari plaka bat atxikitzeko: Adierazpen Askatasunaren Txokoa.

Hiru urteren ondoren, Picassoren *Gernika* ikusgai jarraitzen du bere horretan, eta beraz, adierazpen askatasunaren aldarriak garaipen txiki bat lortu du Zumaian, Kalea Guztiona Da ekimenak zilegitasuna irabazi du-eta. Konstantziaz eta pazientziaz, umorea baliatu dute borrokarako arma gisa. “Baina oraindik ez

dugu irabazi”, argi dio Jose Antonio Letamendia bizilagunak. Aurrerapauso handiak eman direla ez du ukatu, baina asko geratzen dela azpimarratu du, adierazpen askatasuna oraindik ez delako bermatu herrian.

“Udala aldatzen den bakoitzean herritarren adierazpen askatasuna ez jokoan egotea da hasieratik nahi duguna”, azaldu du Aratz Zearreta Kalea Guztiona Da-ko kideak. EH Bildu koalizio abertzalea sartu zen Zumaiaiko Udalean azken maiatzeko hauteskundeetan, EAJren gobernua irauliz eta jeltzaleen botoak gaudituz aspaldian herrian ikusi den alde handienarekin. Duela hiru urte, 2016 urteko otsailean, orduko udalak ordenantza bat onetsi eta indarrean jarriko zuela zioen prentsa ohar bat kaleratu zuten, herritar asko suminduz. Honela zioen: “Hemenetik aurrera herriko eremu publikoetan jartzen diren kartel eta pankarta guztiak kenduko dira edozein delarik hauen eduki, mezu, jatorri edota helburua”. Kartel edo pankarta bat jarri nahi zuen orok

Udal Gobernuari baimena eskatu beharko zion, jakinaraziz eduki zehatza, neurria eta kalean egongo zen denbora.

Ordenantzaren ideia gustatu ez zitzaion herritarren artean zen Jose Antonio Letamendia: “Zergatik esan behar dit udalak neure karteletan zer jarri behar duan eta zer ez?”. Halako zalantza eta ezinegonek, besteak beste, dozenaka herritar batu zituzten asanblada irekian. Zer egin, nola egin eta norengana jo bezalako galderaz josiak izaten ziren lehen bilerak, Letamendiak oroitzen duenez. Baina gero eta jende gutxiago batzen ari zen, baten bati, halako batean, Erribera kaleko horman irudi bat egitea otu zitzaion arte. “Bi egun iraun zituen mural hark, eta handik aurrerakoek ordu batzuk baino ez”, dio irribarrez. Horma irudi horiek berehala ezabatzen zituzten arren, nahikoa izaten zen gaia kalean zabaltzeko: “Gugandik hasita, herritar askok ez zuen ulertzen zergatik borratzen zuten murala berehala, ez baita pintada bat, ezta inor iraintzen duen zerbait ere”.



Erribera kalean "Adierazpen Askatasunaren Txokoa" izendatuz plaka jarri zuten egunean jende asko batu zen ospakizunera.

INDARREAN JARRI GABEKO ORDENANTZA

"Egia esan, hiru urteko legegitzaldia zeukaten aurretik eta lehen bileran zirraborroa ere erakutsi ziguten", dio Zearretak. Ordenantzaren "mehatxupean" jaiota, herri mugimenduari kasu zipitzik egin gabe indarrean jarriko zutela espero zuten Kalea Guztiona Da taldeko kideek, eta "harriduraz" badiote ere, udal gobernuari "ausardia falta" izan zaiola diote Zearretak eta Letamendiak.

Ohiko herri mugimenduek izaten ez duten ekinbidea izatea positibotzat baloratzen dute –manifestazio eta pankartetan zentratu baino, muralak marraztea izan da euren jardueraren nagusia–, izan ere, sormena landuz edozein gai jorratu eta islatu dute Erriberako horman: "Adibidez, ez ditugu beti euskal preso politikoen aldeko muralak egin, edo ildo bereko gaiak jorratu soilik; alegia, hala eginez gero jende batek 'betikoak' bezala katalogatuko gintuzkeen; adibidez, behin iratxo bat irudikatu genuen ikasliburuekin, Gabonetan erlojuen mural bat egin genuen, errefuxiatuen aldekoa

beste noizbait, feminismoarena, erraus-tegiarena edota Picassoren *Gernika*, besteak beste".

Udala, halako ekimenaren aurrean, "galduta" egon dela uste dute, jakin gabe nondik eta nola heldu gaiari. Konstanteki, ia astebururo, mota askotako herritarrek bildu dituzte Erribera kalean, Zumaia erdialdean, kontzertu edo bestelako kultur ekitaldien laguntzaz giroa alaituz pintxo eta tragoen artean egun argiz horma irudia margotzen zuten bitartean eta, horrek, kideen ustez, "min egin dio udalari". Saioa amaitu, argazkia egin eta irribarretsu alde egin zuten etxera, jakinda eguna argitzerako marroiz margotuko zutela gainetik. Muralaren argazkia, baina, bolo-bolo ibiltzen zen sarean, eta denek zekiten zein zen udalaren jarrera: hegan dabilenari hegala moztzen saiatzea.

"Guri indarra ematen zigun udalaren jokabide zentsuratzailerak; kaleko adierazpen askatasunaz eztabaidatzeko parte hartze prozesu bat eskatzen genien, eta haiek, egoskorturik, guk egindakoa ezabatzen zuten besterik gabe, ezer ger-

tatuko ez balitz bezala", dio Zearretak. Zenbait muralak, baina, besteek baino inpaktu handiagoa izaten zutela azaldu du, izan ere, Imanol Urbieta musikaria zendu zenean egin zioten irudia, adibidez, beste muralak bezala hurrengo egunerako ezabatu izanak herritar askori ez zion graziaz egin, mezuari garrantzirik ez emateagatik. Ezta Mediterraneo itsasoan itotzen ari diren etorkinen egoera salatzen zuen murala berehala borratzeak ere, adibidez.

Denetariko margoak egin dituzte hiru urteotan, era bateko zein besteko mezuak adierazteko leku bihurtuz pareta. Esanahirik ez zuten horma irudiak ere egin zituzten –behin granatez margotu zuten guztia, eta udalak hura ere marroiz estali zuen ordu gutxira–. Egindako mural horiek guztiak, urtero-urtero, egutegi batean jaso eta saldu dituzte bai herrian baita Durangoko Azokan ere. Salmenta horiek emandako indarra sekulakoa izan dela adierazi dute eta, horregatik, margotzen "jarraitu beharra" zegoela sentitu zuten: "Bi urtetan 1.500 egutegi inguru saldu ditugu, eta hauek



Hiru urteotan behin eta berriro pareta bera marraztuz –eta udalak ezabatuz– lehiatu dute besteren artean kartelak eta pankartak kalean libre jartzea debekatu nahi zuen ordenanatz.

izan dira gure finantzazio iturri; nabari-tu dugu borroka Zumaiatik harago joan dela eta jendea kontziente izan dela egiten ari ginenaz”.

Hala, 98. muralera iritsi ziren. Otsaila zen orduan. Alderdiek maiatzeko hauteskundeak zituzten buruan; unea aprobe txatu eta mozioa sartu zuten Kalea Guztiona Da-ko kideek Zumaiako Udalean, parte hartze prozesu bat ireki nahi zutela aldarrikatuz beste behin ere. Mozioa sartu eta egun gutxira margotu zuten oraindik ere ikus daitekeen murala. Lehen aldiz udal gobernuak ez zen estaltzen ausartu.

“ETAPA BERRI BAT HASIKO DA”

Borroka ez dela amaitu argi diote Letamendiak eta Zearretak. Abuztuaren 29tik Adierazpen Askatasunaren Txokoa bihurtu dute Erriberako hormaren aurreko plazaratxo, baina ospakizuna ez dela garaipena diote, “idatzita geratu beharko lukeen zerbait” falta delako oraindik. Horretara heltzea dute helburu Kalea Guztiona Da ekimeneko kideek. “Pankarta bat jartzen duenak erantzukizuna du pankartarekiko, bertan plazaratzen den edukiarekiko;

iraintzen bazaitut sala nazazu”: adierazpen askatasuna hala ulertzen duela dio Letamendiak, baina argi dutena zera da, oinarritzko eskubidea den momentutik, funtsezkoa dela udala eta herria adostasun batera iristea zenbait puntutan eta, ordenantza batean adierazita egotea hitzartutako guztia.

Antza denez, EH Bilduren egungo udal gobernuak ez du 98. horma irudia marroi kolorez estaliko, edo ez dirudi ezabatzeak lehentasuna duenik legegintzaldi honetan; parte hartze prozesua hasteak aldiz bai, udalak jadanik abiatu duela jakinarazi baitute Letamendiak eta Zearretak. Dena den, hormari erabilera ematen jarraitu nahi dutela adierazi dute biek. Nola, ordea, beste herri mugimenduekin hitz egin beharreko zerbait da. “Hilabetero mugimendu baten zerbait egiteko ideia mahai gainean egon zen, baina dirudienek ez da aurrera aterako; denon artean erabakiko da zer egin, denona da eta”, dio Letamendiak.

“Borroka hau zerbaitek ezaugarritu badu, hori konstantzia izan da; ez genukeen lortu duguna eskuratuko hamar mural egin eta utzi izan bagenu”, dio

Zearretak. Baina ospakizunak ospakizun, Letamendia tematurik dago parte hartze prozesuarekin. Izan ere, Askatasunaren Txokoa berriz koloreztatzen bada, itxura denez, ez da udal garbitzaileek marroiz estali dutelako izango, herriari adierazteko askatasuna onartu zaiolako baizik. Hiru urtez eta asteburuz asteburu ideiak horman irudikatzeak, kalea guztiona dela aldarrikatu eta boteredunen aurrean zilegitasuna irabazteko balio izan baitu. ●



tradebi@tradebi.com

EUSKARALDIA

Parte-hartzaileek diote hizkuntza ohiturak aldatzeko balio izan diela

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra. 225.154 pertsonen hartu zuten parte hizkuntza ohiturak aldatzeko egindako ariketa sozial handiaren. Euskaraldiak emaitzak aurkeztu berri ditu. 18.383 herritarrek erantzun dituzte antolatzaileek helarazitako hiru galdetegiak. Euskaraldia baino lehen eta Euskaraldiak iraun zuen egunetako aldea begiratzuz gero euskararen erabilerak nabarmen egin zuen gora. Handik hiru hilabetera erabilerak nabarmen egin zuen behera, baina betiere lehen neurketako emaitzetatik gora.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Horixe ondorio nagusia, ekimenaren eraginez hainbat herritarrek hizkuntza ohiturak aldatu eta egunerokoan euskara gehiago erabiltzen duela. Hala adierazi dute behintzat 18.383 parte-hartzailek. Askok esan dute ariketa motzegia egin zitzaizela, hamaika egun gutxiegi direla ohiturak aldatzeko.

Batzuek ordea, beste batzuek baino aldaketa handiagoa egin dute, hala nola, euskaraz hitz egiteko gaitasun txikiagoa dutenak; euskaraz aritzeko ohitura gutxi dutenak; eta gune soziolinguistikoki erdaldunenetan bizi direnak. Ez dute neurri bereko aldaketarik egin euskara maila altua dutela esan dutenak; Euskaraldia baino lehen ere euskaraz asko egiten zutenak; eta gune soziolinguistikoki euskaldunetan bizi direnak.

Aldaketarik handiena ahobizi euskaldun hartzaileek egin dute, hots, hitz egiteko zailtasunak izan arren ahobizi izatera ausartu diren herritarrek. Sailkapenean bigarren izan dira belarriprest euskaldun hartzaileak, alegia, hitz egiten moldatu ezin, baina ulertzen dutenak. Hirugarren postuan geratu dira belarriprest euskaldun osoak. Horiek

euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko arazorik ez dute, eta belarriprest izatea erabaki zuten. Hizkuntza aldaketa txikiena ahobizi euskaldun osoek egin dute, alegia, euskaraz ondo hitz egiteko gaitasuna dutenak.

Ikerketan parte hartu duten herritarrek emandako erantzunen arabera, eta bereziki ahobiziek, txapa identifikagarrien balioa aipatu dute, euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko bultzada sentitu dutelako. Bestalde, parte-hartzaile askok adierazi du aurrekoak euskaraz egin izanak euskaraz erantzuteko beharra sentiarazi diela.

Ikerketaren balorazioaren arabera, Euskaraldiak giro babeslea eta irekia sortzeko balio izan du. Euskaraz egin nahi zuenak zilegitasun soziala nabaritu du lasai euskaraz aritzeko eta euskaraz aritzeko alferkeria astintzeko balio izan du. Euskaraz egiteko lotsaz edo beldurrez zenak adorea eskuratu du. Erdarak erabiltzeko aukerak tresna auto-erregulatzaile moduan balio izan dio euskaraz egiteko zailtasunak zituenari.

Askori Euskaraldiak hizkuntza praktiken inguruko ikuspegi errealistagoa

izateko balio izan dio. Batzuk konturatu dira uste dutena baino gutxiago egiten dutela egunerokoan euskaraz; beste batzuek aitortu dute praktika nahiko errazak zirela uste zutenak –elkarriketa elebidunak, adibidez– uste baino korapilatsuagoak direla; eta beste batzuek poza hartu dute uste baino jende gehiago topatu dutelako euskaraz ulertzen edo hitz egiten duena.


AHULGUNEAK

Nabarmenenak zerrendatuko ditugu: mezua “euskal mundura” mugatu da; euskararen erabileran zentratu ordez, euskararen aldeotasuna adierazteko ospakizun gisa irudikatu da; belarriprest eta ahobizi rolen funtzioak behar bezain ondo ez dira azaldu; erakunde handiek ekimena babestu badute ere hizkuntza erabileran urrats gutxi eman dute. Antzemandako oztopo zehatzagoak: hizkuntza betekizunei eustea kosta egin da; solaskidearen hizkuntza maila baxuagoa izateak euskaraz jarraitzeko gogoak gutxitzen du; solaskideen artean aurrez ezarria dagoen hizkuntza aldatzea zaila da. ●


Euskararen erabileraren garapena

A EUSKARALDIA AURRETIK **O** EUSKARALDIA ONDOREN **H** HIRU HILABETERA

Hizkuntza gaitasunaren eta hartutako txaparen arabera




Euskara ulertzen dutenekin euskaraz ari dira



A O H

Lurraldeka




Sexuaren arabera




* Datuakuntu handiz hartzeak dira. 305 lagunen erantzunak dira.


Egunerokoan



Euskaldun osoa norekin ari den



Euskaldun osoari erraza ote zaio...?



SORTU, BIRZIKLATU, HARREMANAK ERAIKI

Aurtengo Kilometroak jaia antolatzen ari den Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastolan, bigarren ikasturtea du Birsortu proiektuak. 5 urteko haurren esperimentazioa eta imajinazioa bultzatzea du xede, baita bizikidetzaren parte diren konplizitatea, negoziaketa eta liskarrak lantzea ere. Emozioak kudeatzen ikasteko modu aproposa da Birsortu.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Esponja handi bat zotzez zulatu dute ikasleek, triku bat balitz bezala. Edo agian, kandlez jositako urtebetetze tarta bat irudikatu nahi izan dute. Xurgagailuaren hodia berriz, telefonoa bailitzan erabili dute, jolasean; bata besteari belarrira txorakeriak esanaz, barre-algaraka. Baina haur batek ispilutxoak hartu ditu eta atzetik joan zaizkio gainerakoak, hodia alde batera utzita. Orain bai, orain ez, norbere burua ispiluan ikusi ez ikusi ari dira, eta gerturatzea erabaki dut. Azaldu didate, ispiluetan bi aldiz ikusten dutela euren burua islatuta, grabitatea deskubritu berri duten Newton txikiak balira moduan, ilusioz beterik. Izan ere, ispiluaren piezak ez daude inklinazio berean jarrita. Minutu gutxi batzuk ge-

roago, esan didate ispilutxo horiek berak igerilekura sartzeko txartel edo bonoak direla. Hala irudikatu dute.

Segidan etorri da eguneko lehen lis-karra: Saioak ispilu gehiago behar ditu egiten ari den dorrea eraikitzeke, baina ispilu horiek igerilekuko txarteltzat dituztenekin ez du adostasunik lortu. Negarrez hasi da Saioa eta irakaslea gerturatu da, lasaitzeko.

Dena den, behatzea da Salvatore Mitxelenako irakasleen zeregin nagusia, Birsortu proiektuaren baitan: koaderno eta boligrafoa eskutan, gelaren txoko batetik begira jardutea. Lan “zinez interesgarria” dela diote Olatz Zubimendi Haur Hezkuntzako koordinatzaileak eta Arantxa Urbe Birsorturen arduradunak. “Haurrek helduek baino

askoz sormen handiagoa dutela frogatzeko aukera da”, dio Urbek. “Sarri helduok ulertzen ez ditugun asmoak dituzte haurrek”, gaineratu du Zubimendik. Erabilera jakin baterako sortu den materialak, edo helduok erabilera bat eta besterik ikusten ez diogun zerbait horrek, haurrentzat makina bat erabilera izan ditzake, igerilekurako sarrera edo dorre baten oinarri estrukturala. “Zer egingo genuke jada zaharkituta geratu den xurgagailuaren hodiarekin? Zakarretara bota”. Haurrek, baina, antena gisa erabili daitekeela ikusi eta praktikan jarri dute istant batean. Imajinazioari bide emanda. Helduok gara “mugak” ditugunak, “entxufe batek entxufatzeko bakarrik balio duela uste dugunak”.



ERBIBUS

MIKROBUS EGOKITUAK 19 plazatik 43 plazara
Txangoak, ezkontzak, bidaiak, sagardotegiak...

Egiburuberri poligonoa 13, 0V lokala
Orereta - Erreterria
Tel: 943 008 579 - 656 704 021
www.erbibus.com / info@erbibus.com



Erabilera jakin baterako sortu den materialak, edo helduok erabilera bat eta besterik ikusten ez diogun zerbait horrek, haurrentzat makina bat erabilera izan ditzake.

ERROAK ITALIAN DITUEN EKIMENA

Reggio Emilia hirian ditu erraiak Birsortu proiektuak, Italia iparraldean. Haurren pedagogian eredu izan dira bertako eskolak, batik bat 5 urte bitarteko haurrekin egindako lanarengatik, eta azken urteotan bereziki Lehen Hezkuntzako ikasleekin landutako proiektuengatik. Bertan abiatu zuten Birsortu proiektuaren oinarri izan den Remida ekimena, 1996an. "Sormenezko birziklapen zentro" gisa definitua, munduko beste hainbat txokotan jarri dute dagoeneko praktikan: Trondheim (Norvegia), Frankfurt (Alemania), Perth (Australia) eta Buenos Airesen (Argentina), besteak beste.

"Duela hamabi urte inguru Hik Hasi Euskal Heziketarako egitasmoa bi-

daiak antolatzen hasi zen Reggio Emiliara, hemengo hezitzaileok hara joan eta, astebetez-edo, proiektua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuzan", adierazi digu Urbek. Antzeko proiektu bat sortzeko ideia piztu zen Hik Hasiren barnean, "hezkuntza tradizionaletik harago, beste era batera lan egin nahi genuen hezitzaileoi tresna bat emateko". Barne prozesu sakona ireki zuen orduan Hik Hasi, eta urte luzez ideia horrekin bueltaka ibili ondoren, iaz aukera paregabea suertatu zen proiektua abian jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak interesa azaldu eta Emaus Gizarte Fundazioak parte hartzeko prest zegoela iragarri zuenean.

Erronka izan da dimentsio batetik bestera salto egitea; ikasgela ezohiko materialez josi eta haurrak aske uztea; aske sentitu daitezela lortzea



**EKIA
PENTSIOA**
★★

ZARAUTZ

Ni, hi, hura... ikastola mundura!

Tel. 943 010 664 Mug. 650 936 113
info@ekiapentsioa.com
www.ekiapentsioa.com



URPA
BUS

Pol. 55, Bº Ubilluts - edif. 9 / nº4
☎ 943 305 050
20140 Andoain (Gipuzkoa)
www.autocaresurpa.com
info@autocaresurpa.com

**UZZARRI
JATETXEA**

janari
tradizionala



☎ 943 148 321 · Aizarnazabal
www.uzzarrijatetxea.com



Intxausti
harategia · urdaitegia

Juan Martin Intxausti

Grupo La Salve, 33
Azpeitia (Gipuzkoa)
☎ 943 810 489 / 687 527 664



Esponja handi bat zotzez zulatu dute ikasleek, triku bat balitz bezala. Edo agian, kandeletz jositako urtebetetze tarta bat irudikatu nahi izan dute...

Emausek rol inportantea du: enpresa gune handietan bilketa sare bat egitea, zakarretara joatekoa den materiala jasotzeko. Zaborretara bota beharrean, ordea, material hori zaindu eta egokitzeaz arduratzen dira Gipuzkoako Artisauek, horiek garbitu, sailkatu eta haurrei egokitzen. Ondoren, ikastetxeetara banatu eta ikastetxe bakoitzak erabakitzen du nola txertatu bere egiteko moduan.

Lehen aldiz materiala banatu zutenean, zailtasunak izan zituztela gogoratu dute bi irakasleek: "Hasiera batean lau ikastetxek hartu behar zuten parte, baina hamalauk eskatu genuen, eta denetara iristea erabaki zen; bakoitzari zer eta zenbat ematea zaila izan zen, ez baitzegoen sorta bera denontzat". Sorta eskuratzeko biltegi bat ezartzea lortu dute aurtan, eta horri esker, iaz Birsortun aritu ziren ikastetxeek gain, biltegia kokatzen den Leintz bailarako eskolek ere izango dute aukera material bila joateko.

BESTE DIMENTSIO BATERA, IMAJINATZERA

"Material guztia gela bakarrean utzi genuen, eta beste bi gela moldatu genituen, bat antzerkirako espazio bilakatuta eta bestea margotzeko gune. Hala, goizetan zirkulazio librea dute hiru geletako haurrek, bakoitzak nahi duen tokira joateko aukera izan dezan nahi duena egitera". Haurren dibertsio une horietan, gainontzeko ikasgaietan bezalatsu, behatzea dagokie irakasleei. "Ikasleak jolastu al duen behatzen dugu, ea zer eraiki edo irudikatu duen, zenbat denboraz, zer harreman izan duen beste ikaskideekin, ea Birsortu gunean aritzen den edo ez duen gustuko..."

Gelaz gela mugitzeko askatasuna eta hiru gela horietako bakoitza modu batera atonduta egotea, haurrak imajinazioa lantzeko eta pentsatutakoa gauzatzeko funtsezko baliabideak dira. Sozializazio prozesuan lagun-



Orain bai, orain ez, norbere burua ispiluan ikusi ez ikusi aritu dira haurrak.

garria dela ere badio Urbek: “Leku horietan ematen diren harremanak bestelakoak dira; bakoitzak bere interesen arabera jokatzeko du, eta egoez bultzatuta, beste une batean elkartuko ez liratekeen bi haur elkartu daitezke, batek besteak nahi duen objektua nahi duelako adibidez. Orduan sortzen dira elkarrizketak, eztabaidak eta kasu askotan, baita liskarrak eta kasketak ere; emozio horiek kudeatzen ikasten du haurrak”.

Funtsean, Birsortuk harremanak egiteko beste modu batzuk ahalbidetzen ditu: “Emaizta ez da hain inportantea”, azaldu du Zubimendik, “jarduna eta jardun horren inguruan ematen diren gertaerak baizik”.

Urbek aitortu du irakasle guztien aldetik ahalegina eskatzen duen ariketa dela haurren dimentsiora gerturatzeko jakitea, behatzerakoan: “Hasiera batean iruditu dakiguke ez direla ezertan ari, baina gure buruan biga-

rren eta hirugarren buelta bat beharrezkoak dira, eta haurrari galdetuz gero zertan ari den, atzetik dagoen istorio osoaz jabetuko gara”.

Helduon produktibitateaz ere mintzatu dira Urbe eta Zubimendi. “Agerikoarekin eta emaitzarekin” geratzen gara bizitzako eremu askotan, eta ez sortze prozesu horretan jazotako gertakariekin, ezta sortu edo eraiki bitarteko ilusioarekin ere. “Zotzez zulatu dute esponja handi bat, baina zer egin dute? Ilusio handiz sartu dituzte zotzak banan-banan, eurek baino ez dakiten zerbait irudikatzen ari direla”.

“Erronka izan da guretzat”, diote. Erronka, dimentsio batetik bestera salto egitea; ikasgela ezohiko materialeraz josi eta haurrak aske uztea; metro jakin batzuen barnean eta irakasleen begiradapean izanda ere, ikasleak aske sentitu daitezela lortzea. Sormena lantzeko aske, imajinazioari bide emanda. ●

JAI EREDUA ALDATZEKO ATARIAN

Ni, hi hura... ikastola mundura! lelopean, urriaren 6an egingo dute Gipuzkoako ikastolen jaia. Hirugarren aldia da Zarauzko ikastolak kilometroak antolatzen duena, eta orain arteko moldean egiten den azkena izango da, hurrengo urtetik aurrera beste festa-eredu bat baitute helburu, *Kontsumitzaile izatetik, parte-hartzaile izatera* erreportajearen kontatu genizuen bezala (ARGIaren 2614. zenbakian).



**Ogitarteño eta pintxo
bero zein hotzetan
espezializatua**

**943 42 74 05
ENBELTRAN KALEA, 6
DONOSTIA**





MONDRAGON Kilometroak eginez

MONDRAGONen kooperatibok bidea egin
dugu euskal kultura, ohiturak
eta hezkuntza babesten: Kilometroak!
Aurten Zarautzen dugu hitzordua.
Ni, hi, hura, ikastola mundura!

Bi dozena untxi Australia suntsitzeko



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Australia, 1859. Thomas Austin (1815-1871) kolono ingelesak anaia-ri idatzi zion bi dozena untxi eskatzeko. “Untxi gutxi batzuek ez dute kalterik egingo, etxean bezala sentitzen lagunduko didate eta gainera zer ehizatua izango nuke”. Beraz, Austinek ez zituen untxiak hazi nahi, hil baizik. Ehiztaria zen, eta ordurako bere lurretako animalia gehienak garbituak zeuzkan. Horregatik, 24 untxiak bere lur sail zabaletan askatu zituen, han ez zegoen ia harrapari naturalik eta untxiek hoberen egiten dutena egin zuten: ugaltu.

1866rako Austinek 14.000 untxi eta arazo handi bat zeuzkan bere lurretan. Mendea amaitzerako, arazoa handik 5.000 km-ra eta Australiako gobernura iritsi zen. 1901 eta 1907 urteen artean 3.000 km-tik gorako hesia altxa zuten untxiak gehiago zabaltu ez zitezen. Tranpak ere jarri zituzten hesien azpitik pasatzen ziren untxiak harrapatzeko. Baina hesien azpitik ez ezik, lurrazpitik ere ederki pasatzen dira untxiak.

1920rako Australiako untxien populazioa 10 mila milioikoa zen. Belarra, landare txikiak eta zuhaitz gazteak janez egin zuten aurrera. Sustraiak ere jan zituzten, landare berriak haztea galaraziz eta, ondorioz, ber-



AUSTRALIAN UNTXIEN KONTRA JASOTAKO 3.000 KM-KO HESIAREN ZATI BAT.

tako animaliak elikagairik gabe utziz. Lurra babesteko landararik gabe, higadurak lurzorua suntsitu zuen eta aurrez berdez estalita zeuden eremuak basamortu bihurtu ziren. Australia bera ez ezik, inguruko uharteak ere kolonizatu zituzten untxiek. 1906 eta 1936 bitartean hegoaldeko kostaldeko irla bateko hiru papagai espezieak desagertu ziren eta 26 zuhaitz espezieetatik hiruk baino ez zuten iraun.

Hesiak, pozoiek, gas toxikoek... alferrikakoak ziruditen. Eta 1950eko hamarkadan gerra biologikoari ekin zioten. Mixomatosiarekin eraso zituzten eta un-

txien %5 besterik ez ziren bizirik geratu. Nahikoa urte gutxitan izurria berritzeko. 1996an kalizibirusarekin saiatu ziren eta, eragozpen etikoak alde batera utzita -birus horrek heriotza krudela eragiten du-, badirudi neurriak arrakasta izan zuela. Orduz geroztik untxien populazioa txikitzen ari da, baina lehentasunezko arazoa da oraindik Australiako Ingurumen Ministerioan.

Austinen untxiekin gertatutakoak ederki erakusten du nolako kaltea eragin dezakeen espezie inbaditzaile arrisku-tsuenak, gizakiak. ●



Modenako maitaleen zalantzak

2009an duela 1.600 urte inguruko bi giza eskeleto aurkitu zituzten Modenako (Italia) nekropoli batean. Giza arrasto gehiago ere bazeuden bertan, baina bi hauek bereziak ziren: hilobi bakarrean zeuden ehortzita, eta eskutik helduta. Hildakoen generoa bereizteko erabili ohi diren elementuak oso hondatuta zeudenez, ezin izan zuten baieztatu gizonak ala emakumeak ziren. Baina berdin zion; garbi zegoen gizona eta emakumea zirela, eta maitaleak, jakina. Berehala “Modenako maitaleak” betiereko maitasunaren sinbolo bihurtu ziren. Hortzetako esmalteko proteina baten bidez generoa

zehazteko metodo berri batek biak gizonetzkoak zirela adierazi duen arte. Frogarik gabe ontzat eta ziurtzat jo ziren guztiak zalantzan jarri dira orain. Anaiak ote ziren? Lehengusuak? Gudu zelaian batera hildakoak? Boloniako Unibertsitateko Federico Luigi ikerlariaren arabera, “maitaleak izatea ez dugu guztiz baztertzen, baina hipotesi urrunena da, orduan homosexualitatea krimena zelako”. Garai hartako gizartearen ikusmoldea kontuan hartu behar dela dio. Baina gure garaiko gizartearen ikusmoldeak arrastoak interpretatzean izan duen eragina ere kontuan hartzekoa da. ●

LANDAREEN ENTZUKETAK

Israelgo unibertsitateko ikerketaren arabera, loreek erleen hegaldia entzun egiten dute.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Erotuta edo! Txoratzen hasita egongo zara! Burutik egina hago! Horrelakoak entzungo zenituen inoiz lagunartean zera esan baduzu: landareak inteligenteak dira. Ixilik geratzen da asko, bisajeak salatzen du, ordea, ulertzen ez duten hori; zenbaiten begiek nahikoa diote...

Gure ikuspegi antropozentrikoak ("munduko onena naiz") begirada eta zentzumena mozten ditu, lehenaz gain. Landareen artean komunikaziorik izan litekeenik ere ezin kabitu zaigu buruan. Nola elkar aditu, elkar eratu eta, garrantzitsuenak, elkar hartuko dute bada landareek?

Ugaritzen ari dira azkenaldi honetan bide hori argitzen duten ikerketen emaitzak. Landareek entzun egiten dute, aldamenekoei mezu kimikoak igortzen dizkiete, sustraien sareak lotzen dituzten ondokoak direla medio elkarren berri jakiten dute eta abar.

Teoria horiek sendotzen dituen berri bat dator Israeldik. Bai, gezurra badi-rudi ere Israelen gauza onak ere badi-ra. Tel Aviveko unibertsitateko Lilach

Hadanyk eta Yossi Yovelek argitaratu berri dute bere ikerketaren ondorio harri-garria: loreek erleen hegaldia entzun egiten dute. Erleak inguruan dantzan dabiltzala jabetzen denean, lorean daukan nektarra azukrez hornitzen du eta gozoago bihurtu. Horrela lore horiek erakargarriagoak izango dira erlearentzat.

Saioetako bat oso sinplea izan da: loreei erleen soinuaren grabazioa "entzunarazi" zieten. Nektarraren azukre metatzea %20 ere aberastu zen. Alferrik ariko da nektarra gozatu eta gozatu erlerik ez badabil, eta besteren batek "lapurtu" dezake. Energia aurreztu eta ugaltzeko bidean, loreak ernaltzeko aukera handitzen du.

Landareak nola tratatzen du soinua? Ez dute argitu, baina, agi danean, loreak



YOSSI YOVEL ETA LILACH HADANY IKERLARIAK



berak dira belarri lana egiten dutenak: soinuaren bibrazioak bildu eta erantzuna bideratzeko gai dira.

Beste aldea ere ikertzen ari da bat baino gehiago, landareek beraiek sortzen dituzten soinuak, alegia. Diotenez, maiztasun oso garaietan aritzeko gai dira. Esaten dutena ulertzeko gai noiz izango ote gara? Izan ere, badakigu goi maiztasunetan aritzea dela osasuntsuena, orekatsuenak, hau da, ederrena. ●

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago berrikuntzak egiten eta ingurumenarekin konprometituta.



Industrial



Inbuztadura



Bioteknologia



BIZIAREN AHOTSAK

BASERRIRA BISITA
BERTSOLARIEKINGARAZI
ZABALETA

2017ko urte bukaeran eman zuen ezagutzera *Baserriko Uzta* egitas-moa EHKolektiboa elkarteak: ur-taro bakoitzean Euskal Herriko baserri ekologiko eta txiki banatan kontzertuak iragarri zituzten orduan. Kulturaren eta musikaren bidez baserrietako ateak zabaltu eta beren errealitatea gainontze-ko herritarregana hurbiltzeko modu bat zen proiektua. Helburu berarekin abiatu dute orain EHKolektibotik *Biziaren Ahotsak* ekimena: musikak behar-rean, kasu honetan bertsolaritzak har-tuko du protagonismoa.

LURRAREKIN ETA HERRIAREKIN
KONEKTATZEA ASMO

Eredu ekologikoan diharduten Euskal Herriko baserriar txikiek eta bestelako kon-tsumo eredu bat bilatzen duten herritarrek osatzen duten elkarte da EHKolektiboa. Kolektibo barnean egiten ari ziren lanketa herritarregana zabaltzeko beharra ikusi zuten duela bi urte, eta horrela bururatu zitzairen baserriaren eta kalearen arteko zubi lana egiteko ekimen musikala abiatzea. Musika taldeak izan beharrean, bertsolariak izan dira oraingoan herritarrak baserrietara erakarriko dituztenak.

“Baserriarrok gogora ekarri beharko genuke zerk/nork ematen digun bizia: lur-

rrak. Gogora ekarri beharko genuke gure ardura: herria benetan elikatzea –ez sa-bela betetze hutsa-. Bi elementu horien arteko orekan bizi behar. Lurra eta herriarekin konektatu berriz ere”, diote ekimenaren bultzatzaileek zabaldutako prentsa oharrean. Ahotsa-ren komunikazio gaitasuna baliatuz, baserria bisitatze eta hango lana ezagutzeko aitzakia izanzen dute hurrengo hilabeteetan bertsozaleek eta bertsolariek.

LEHEN ZITA
URRIAREN
5EAN
PIKUNIETA BASERRIAN

Bertso bisita ilustratuaren lehen edizioa Antzuolako Pikunieta Baserrian egingen dute, urriaren 5ean. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak arituko

dira bertan, goizeko 10:30etatik aurre-ra. Baserrian bisita egingen dute lehen-ik hurbildutakoek, eta bertso saioaz gain bazkaria ere bertan izanen da.

Biziaren Ahotsak ekimenaren lehen saio horretan izena eman nahi dutenek irailaren 21etik dute aukera EHKolekti-boaren webgunean. Bisita, bazkaria eta bertso saioaren prezioa 25 eurokoa izanen da helduentzat, eta 15 eurokoa 12 ur-tetik beherakoentzat. 6 urtetik beherako parte hartzaileek doan-ik izanzen dute ekime-nerako sarrera. Honela diote ekimenaren in-formazio oharrean antolatzaileek: “Baserri-tarrok eta bertsolariok elkarrekin jarriko dizkiogu ahotsak biziari, mun-duan jarriko gaituzte ahotsok, ikusga-rrri egingo gara. Esentziara joko dugu: elikadura eta ahotsa”. ●



sasoikoa ...
bertakoa ...
NAFARROAKOA



ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1977ko otsailaren 1a



KOLDO IZAGIRRE

Igandea eta estropadak, eguraldi ona, jendetza hondartzan. Hala ere, gustura ibili zen lehorretik uretara. Haize brisak paperezko ikurrinak zekartzen tarteka, umeez ez zieten astirik ematen бага uzkurretan kulunkatzeko. Bui-la, zipriztinak, Nivea lurrin betegarria. Arraunlarien txanpak ikusten geratu zen gero. Berezia zen giroa, euforia bezalako bat sumatzen zuen inguruan, une batean euskara gehiegi entzuten ari ez ote zen iruditu zitzaion.

Gaszteagoa zelarik, Goi-Alde antzerki taldean ibilia zen, Hernanin.

Jende arraroa sartzen zen tarteka bere dendan, baina ez zion bestelako garrantzirik eman.

Ebakuntza ondoko zorabiotik guztiz irten gabe heldu zitzaion abokatua. Bai, konforme zegoen salaketa ipintzeko. Biharamunean epaitegiko emakume bat, sinadurak. Handik laster, brigada politiko-sozialekoak. Azkenik, epaile militarra soldadu batekin, galdeketa. Abokatuak jakinaren gainean jarria zuen: aitorrara-zi nahi izanen zioten gizon hura lurrean zegoela, lurrean, eta jendeak zanpaka zerabilela. Baina ez, zutik zegoen "Faxista!" oihukatzen zion jendearen aurrean, zutik, pistola eskuan. Sei bat metroren alde. Arantxa Kortaberria femurra hautsita jausi zen, udako soineko polita odolatan. Zalaparta hartan, kalekoz jantzia zegoen armaduna hiriko trafikoan barrera ezkutatu zitzaion pistolaren bortxaz bahitu zuen Seat 127 zuri batean.

"Ni ez naiz inor, baina komeni dela uste baduzue publikatzea ezazue...". Maila, Arantxak! ●

ARGIAK 100 URTE

DIBERTSIFIKAZIOA

Aldizkaritik harago badago zer aukeratu ARGIAN



1999an Gure Mendea mahai jolas, liburu eta CD rooma aurkezten. Erdian Pello Zubiria orduan ARGIAKO zuzendaria, eta eskuinean Iñigo Aranbarri eta Garbine Ubeda egileak.

MIREN OSA GALDONA

Jada ohitu gara ARGIA hizkien lerro artean ez ezik, beste makina saltse-tan ikustera ere: izan gai beroei buruzko liburu ekoizpenean, izan Euskal Herriko kamiseta aldarrikatuenean salmentan, edo izan lagun artean jolasteko jokoen sorkuntzan.

"ARGIAK betidanik egin izan ditu gauza ezberdinak". Horixe Bego Zuzak lehen galderari botatuko erantzuna, ARGIAren dibertsifikazioaz galdetuta-koan. 80ko hamarkadan ARGIAk jada produktu propioak argitaratu zituen, aldizkaria kaleratzea bera nahiko erronka bazen garaian: Kike Amonarri-zek eta Asisko Urmenetak zabaldu zuten bidea, txiste liburuak eta komikiak plazaratuz, eta kolaboratzaile sare zabal bati esker, bideari jarraitzeko adina indar izan zuten. Hala, mende berriaren estreinaldia ere parean tokatu zen eta XX. mendea kontatzeko modukoa izan zenez, *Gure Mendea* izeneko mahai-jolasa ondu zuten erredakzio barruan: "*Gure Mendea* deitu genion gure kontakizuna egin nahi genuelako, euskaratik eta euskal kulturari buruzkoa". Ordea, ehun urte haiek ere ezin

galdera sorta batean bildu, eta azke-nean liburu zein CD gehigarriekin osatu behar izan zuten produktua. Jendearen harrera uste baino hobea izan zela dio Zuzak, eta horri helduta, ildo berri beti ekitea erabaki zuten.

90eko hamarkada aldera jaiotakoek badugu zer eskertu hartutako norabideari, *Badakit* tribial euskaldunaren aurrean pasatako orduengatik izango ez balitz, batek baitaki zer-nolako "kultura orokorra" edukiko genukeen egun. *Bocamoll*, Mihiluze saioaren mahai-jolaserako bertsio katalana ere argitaratu zuten mende berriaren lehen hamarkadan. Orotara, 15 jolas ingururekin entretenitu eta ikasteko aukera dago gaur egun, nahiz eta zenbaitzuk katalogotik kanpo dauden. "Dibertsifikazioa beti lotu izan dugu sostengu ekonomikoarekin; beste diru-iturri batzuk bilatzea izan da beti asmoa", dio Zuzak.

Etorkizunean zer? Bada bide beretik jarraitzea da asmoa. Egon adi urriaren 12an ARGIAK egingo duen egun handiari: bi produktu berri labetik ateratzear dira, eta ziur bat baino gehiago aho bete hortz utziko dutela! ●

XAPOKETAN JOLASA

Jolastuz ikasiko ditugu Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak

Hiru egileak, Eñaut Aiartzaguena marrazkilaria, Lore Erriondo pedagogo eta Iñaki Sanz-Azkue biologoa *Xapoketan* jolasa eskutan dutela.



 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bertako animaliak ezagutzeko jolasa atera du ARGIAk: *Xapoketan*. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan topatuko ditugun zazpi ekosistema desberdin identifikatzeko aukera emango digu. Eta lagunduko digu ezagutzen egunero gure ondoan ditugun 42 bizidun hauen itxura eta izenak, euskarazkoa eta izen zientifikoa. Zeren, nork ez daki jirafa baten ezaugarriak banan bana esaten? Nork ez daki hartza zuria nolakoa den? Urtetan ikasi dugu beste lurraldeetako animalia exotiko hauek nolakoak diren, baina ahaztu ditugu gure alboan ditugun asko. Nork ezagutzen ditu dupont hegatzabala, hoplia urdina edo arrabioa?

ZER HOBERIK JOLASTUZ IKASTE BAINO

Etxean zein eskolan erabiltzeko moduko karta-jokoa da. Karta horiekin bost jolas ezberdin egin ahalko ditugu, eta animalia hauei buruzko azalpenak ere emango dizkigute fitxek. Familia jolasa azalduko dugu segidan: Euskal Herriko lurralde bakoitzeko ekosistema bat aurkeztuko digute kartek. Bizkaiko hareatza eta padura, Gipuzkoako goi larreak, Lapurdiko itsasoa eta itsalabarra, Nafarroa Behereko basoa,

Zuberoako landa eremua, Nafarroako basamortua eta Arabako sastrakadi mediterranea. Ez al da ekosistemaz ere anitza eta ederra Euskal Herria? Ekosistema bateko "familia" osatzea izango da jolas honen helburua, eta horretarako bildu beharko ditu ekosistema horretako sei animalia zehatz: ugaztun, anfibio, narrasti, hegazti, arrain eta ornogabe bana.

Iñaki Sanz-Azkue biologoak hautatu ditu Euskal Herriko lurralde bakoitzeko ekosistema zehatzak eta hauetako animaliak. Eñaut Aiartzaguenak marrazki eder bezain errealistak egin ditu. Eta Lore Erriondo Pedagogian doktore eta EHUKO irakasleak landu ditu edukiak emateko modua eta jolasen dinamika, jokalariek ahalik gehien ikasteko modua zainduz.

ARGIAREN Azokan (azoka.argia.eus) salgai dago *Xapoketan* 15 euroan. Jolasa eskutan izan eta ezagutu nahi duenak, aukera izango du urriaren 12an Donostian ARGIAk mendeurrena ospatzeko egingo duen *Deskoloniza gaitzen!* festan: karta jokoaren egile Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Aiartzaguenarekin Urgullen zomorro bila arituko gara, eta Trinitate plazako ARGIAREN mahaitxoan jolasa erosteko aukera egingo da. ●



ARGIAREN Mendeurren Festan lagunduko?

Urriaren 12an Donostian egingo dugu ARGIAREN 100 urteak ospatzeko festa nagusia. *Deskoloniza gaitzen!* du lema eta xehetasunak astez aste azalduko dizkizuegu astekarian (egitarauaren orria ikus dezakezu astero).

Jai parte-hartzaileak ditugu maite, eta ateak zabal zabalik izatea Argia Jendea sukalderraino sartzeko. Txosna atzean turnoren bat egingo zenuke? Umeen esku-lan txokoan laguntzen aritzeko prest?

Dagoeneko ari da Argia Jendea lanerako izena ematen. Zu ere prest bazara, idatzi helbide honetara:

argiak100urte@argia.eus

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendea-ren zat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



ARTIUM MUSEORAKO SARRERAK

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Irailak 26, osteguna, 10:00etan

“FUCK ABERRIA, GORA EUSKARA”

Arrano Pertxa eta Lengu Iluna

Hip-hoparekin tirokatuz

Gangsterrak, drogak eta mafiak eguneroko kontua dira Arrano Pertxaren eta Lengu Ilunaren unibertsoan. “Zipaio” hitza existitzen ez den Euskal Herri independentetik ari dira abesten: “Kostaldeko nafarrak halakoak gara, jokozale drogazale beti kriminalak”. Euskal rapa beraiekin jaio dela aldarrikatzen dute, Mikel Goñi “original gangsta” gisa aurkezten duen kamiseta soinean. lazkoa dute lehen diskoa: *Jaungoikoa dirua eta erritmo zaharra*.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Errekalde plazako hormigoizko kioskoak auzoaren historia dauka grafitatuta: langile borroka, presoaren irudiak, Kukutza III. Urko Gonzalez (Arrano Pertxa) eta David Rodriguez (Lengu Iluna) kamera aurrean pausatu direlarik, neskati bat gerturatu da patinete ez-elektrikoan: “Hau ez duzue oso toki turistikoa eh!”. Kioskoaren atzean dago futbito zelaia, eta parean kafetegi bat, terraza eta guzti: elkarrizketarako tokia. “Bilbon gaude, baina aparteko zerbait da hau, ia herri bat”, dio Gonzalezek, “hemen beti izan ditugu mugidak, anbulatorioa kristo bat eginda, autobus linea jartzeko sekulako iskanbilak... Gorpuzkingzekoak ere kildu ziren, pentsa. Esaten ziguten: hau bai dela benetako ghetto bat!”. Hip-hop

munduan betidanik ibiliak izaki, aspaldi ezagutzen dute elkar, baina sekula elkarrekin lan egin gabeak ziren proiektuari ekin aurretik. “Makinaria bat gara, ikaragarri ondo moldatzen gara lanean hasitakoan”. Elkarri erreleboka, hizketan ere fin-fin segi dute.

Nondik sortu zen “Arrano Pertxa eta Lengu Iluna”?

Arrano Pertxa: Ez nuen sekula euskaraz kantatzeko beharrik sentitu. Gaztelaniaz pentsatzen dut. Banekien, ordea, inoiz euskaraz kantatzekotan, zerbait oso makarra egingo nuela. Ez gaztelaniaz kantatzen dudaren antzeko ezer –irudi poetikoagoak edo doinu politagoak bilatu ohi ditut–, eta ez Euskal Herrian betidanik egin den rap mota hori ere. Beste zerbait

izan behar zuen. Noizbait Nafarroako herri galduren bateko baserritar gazte batek bere ibilerak kontatzen baditu, hori izango da niri gustatuko zaidan rapa. Baina inork egin ez duenez, pentsatu nuen: “Hau duk ueña”. Eta rap zaharrarekin berriro maitementzen hasi naizen garai batean gertatu da justu.

Lengu Iluna: Nik euskaraz ez dakit tutik ere, baina berdin du, letrak Arranorenak dira eta itzuli egiten dizkit gero. Hori da gehien gustatzen zaigun zatia, gainera.

Eta zein da ba Euskal Herrian betidanik egin den rap mota hori?

A.P.: Tira, raparen oinarriak zituen, jendeak rapeatu egiten zuen, baina popa zen funtsean. Euskal Herrian abesten den betiko mezua rap bilakaturik –reggae, punk





edo rocka beharrean-, betiko formula beste genero batean. Mezu politikozko musika popa izan da hemen. Eta kanta haiek niri ez zidaten transmititzen rapeatzaile amerikar, frantziar edo espainiar batzuek transmititzen didatena. Jarrera kontu bat da: hemen nago munduan, berdin du zer diodan, nahi dudana esaten dut eta entzun nazaten nahi dut. Horregatik daukat jarra hori, entzuna izan nahi dudalako.

L.I.: Niri esaten zidan: "Egin behar diagu Mucho Muchachok egiten duena, baina euskaraz". Segituan ulertu nuen. Horretan saiatu gara, eta uste dut lortu dugula.

Kantatzen diozue drogari, mafiari, diruari, gangsterrei... zenbat du ghettoetik 2019ko Bilbok?

A.P.: Fikzio puntu bat dauka denak. Arra-

noren mundua fikziozkoa da, baina ni ezin naiz nire eskutik bereizi... Rapak estetika bat sortu behar du. Niretzat izugarria litzateke, adibidez, euskaraz ez dakien batek gu entzutean 90eko hamarkadako rapaz gogoratzea, berdin dio zer esaten den eta zer ez, eduki dezala izaera bat lanaren osotasunak -sampleek, scratchek, rapeatzailearen oihuek, eta generoaren beste hainbat ezaugarri-.

L.I.: Egiten duguna oraintxe ez du inork egiten, ez gaztelaniaz ez euskaraz. Orain trapa egiten ari da mundu guz-

tia. Hau beti-betiko hip-hopa da. Bizpahiru belaunaldiko jauzia ematen ari gara.

A.P.: Noski, tarteka esaldi batzuk pixka bat behartzen ditugu, baina estetika bat bilatzeko erabiltzen dugu hizkera hori. Istorio bat idazten duzunean, kontua ez da fikzioa den ala ez, baizik eta ea sinesten ote duzun. Tarantino ez da gangsterra, ezta Al Caponeren semea ere. Baina bikain idazten ditu halako istorioak, eta izugarri gustatzen zaizkigu.

L.I.: Zertaz ari zaren jakin behar duzu halere. Ez duzu zertan barru-barruan egon, baina... nik ez dut trafikatzan,

“

Euskal Herrian musikalki atzeratuta goaz, hiru belaunaldik entzun dutelako Eskorbuto, La Polla Records, Kortatu... Horrek pisu handia du”

Arrano Pertxa



baina badakit nola egiten den eta nolakoa den mundu hori.

A.P.: Tira, gure belaunaldia kalean hazi da, gutxi asko denek izan dute harremana drogekin, baina mundu horretan ez zegoen euskararik. Saiatu gara asmatzen euskarazko kaleko jerga bat ere, eta primerako erantzuna jaso dugu. Batez ere, espero ez nuen sektore batetik:

euskal raperoengandik. Jakin-mina nuen jendeak zer esango zuen, panoramak nola hartuko gintuen, baina gehienei izugarri gustatu zaie, beste batzuei asko, eta badi-ra batzuk –eta horrek pena pixka bat ematen dit– hartzen gaituztenak broman ariko bagina bezala. Baina ez, kontua da estetika bat bilatzea, eta aurkitu arte zeurean jarraitzea. Berdin du zer diozun. Rapa, rapa eta rapa. Muturreraino rapa.

AEBetako 80ko hamarkadako raparen eragina daukazue, batetik; eta, bestetik, oso presente dago “euskaltasuna” zuen hitzetan. Arrano Pertxa izenetik hasita, etengabeak dira euskal sinbologiari eta bestelako erreferentziei aipamenak, zuzenean ez bada zeharka.

L.I.: Gainera, mundu utopiko bat proiektatzen dugu. Arranoren unibertsoan, Euskal Herria independentea da...

A.P.: Muga bat dago Karrantzan, beste bat Lapuebla de Labarcan... hori gerta

daitekeen unibertso bakarra da. Ez dut “zipaio” hitza aipatzen, horregatik: mundu independente batean ezingo liratekeelako “zipaio” deitu.

Halere, ez al da mundu distopiko samarra?

A.P.: Bai, gabezia handiak ditu mundu horrek. Kanta berrienetako batean diot: “Aberri mada-rikatua, besteak bezala”. Esanez bezala, Euskal Herria beste herrialde bat gehiago da, Moldavia edo Ukraina izan daitekeen bezala: kaka zahar handi bat. Hori da kontua. Euskaldunak gara, bai, eta zer? Sudurtzarra ere badaukat, eta ez naiz hortik joaten “aupa sudurluzeak” oihuka. *Fuck* aberria, gora euskara.

Ze toki dauka Mikel Goñik unibertso horretan?

A.P.: Goñiren historia sekulakoa da. *Real gangsta* bat.

L.I.: Arranoren munduan, Tony Montana gutxienez.

A.P.: Are hobea da: kirolari profesionala zen. Betidanik mundu horretan ibili den norbait balitz, tira, baina bera telebistan ateratzen zen, egun batean belarra lapurtu zioten eta... akabo. Agian pentsatzen zuen ez zitzaiola ezer pasako.

Hitz egin dezagun zuenaz. Izugarri ondo moldatzen omen zarete

elkarrekin lanean.

L.I.: Hala da. Biok elkartzen garen bakoitzean beti bukatzen dugu base bat egiten. Kafe bat hartzen dugu, eta nire etxera joaten gara. Urkok beti ekartzen ditu sample batzuk, nire ondoan eserita egoten da uneoro, eta hasten gara sampleak zatikatzen, bateriak sartzten, baxua gero... Nik erritmoa egin bitartean berak zerbaite probisionala rapeatzen du agian. Eta etxetik joaten denerako, ideia printzipala bukatuta eduki ohi dugu.

A.P.: Aurreko diskoan, aurrena abesten tituluak idatzi nituen. Banekien ze izenburu izango zuten eta, hartara, nire burua behartu nuen titulu haien araberrako hitzak idaztera. Normalean kontrakoa izaten da bidea, baina nik hori nahi nuen, benetako gidoi bat edukitzea. *Dirua da bide bakarra* titulua baldin badaukazu, badaukizu diruari buruzko kanta egin behar duzula. Hamar bat hilabete osatu genuen horrela lana.

L.I.: Bestalde, G-Folk-a asmatu genuen –G-funk-ean oinarritutako kontzeptua–. Sample desberdinak erabiltzen ditugu, asmoaren arabera: batzuk funkyagoak dira, besteak folkiagoak. Azkenaldian Calabriako musika italiarra erabili dugu, adibidez. Hori bai, beti moldatzen dugu gure rollora, triki bat sartuz, eta abar.

Euskarazko hip-hop talde berri asko ari da sortzen. Antzematen diezue lehengoek ez zeukaten jarrera hori?

A.P.: Dudarik gabe. Nik ez dut trapik



tu zen-. Noiz agertu zen Euskal Herrian elektronikako lehen talde serioa?

L.I.: Tira, hor daukazu Hemendik At.

A.P.: Horixe esan nahi dut ba: kaka zahar bat ez den lehen elektronika taldea, noizkoa da?

L.I.: Ironia zen, motel. Lehengoan Bilboko jaietan entzun zitekeen.

Ez pentsa orduan Hemendik At elektronikaren estigmatik libratzen zenik, letra esplizituki politikoak izanda ere.

A.P.: Noski! Niretzat kontua da popak ze forma hartzen duen toki bakoitzean: AEBetan popak hip-hop kutsurantz jotzen du; Espainiako 90eko hamarkadako popak

flamenko eta rumba kutsua zeukan; eta Euskal Herrian popa izan da mezu politikoak kantatzeko musika.

Ze asmo aurrerantzean?

A.P.: Bi hilabete behin single bat ateratzen ari gara aurten. Hiru atera ditugu jada, orain tokatzen da beste bat, eta gainontzeko biak ia amaituta ditugu. Eta, tira, ondoren diskoa etorriko da. Lau kantaren izenburuak pentsatuta ditut [barrez]. Zerbait luzea egin nahi nuke, hamalau bat kantakoa. Lehen diskoan gure burua aurkeztu dugu, bigarrenean beste toki batzuetara iritsi nahi genuke. Hori da gure bidea: filtro politikoki zuzenak alboratuta, rapeatu eta rapeatu. ●

“

Mikel Goñiren historia sekulakoa da. Real gangsta bat”

Arrano Pertxa

entzuten, baina ikusten dut jendea oso indartsu ari dela: Nizuri Tazuneri bikain dabilta; Lekeitioko gazte batzuek -G.A.Z. Limbo- sekulako maila dute, oso onak izango dira; Gorpuzkingz antzerki taldea ez dut musikatzat jotzen [barrez]. Eta rapari dagokionez: Ziakhus, Buru Arin, Xsakara... rap amerikar asko entzundako jendea, oso gauza onak egiten ari dena. Zergatik orain bat-batean *boom* hau? Euskal Herrian musikalki atzeratuta goaz, hiru belau-naldik entzun dutelako Eskorbuto, La Polla Records, Kortatu... Horrek pisu handia du. Gatazka politikoa ondo-rioz musikalki atzeratuta goaz. Ez dut esan nahi hemen musika kaskarra bakarrik egin denik, baizik eta ez garela munduko joeren erritmo berean joan. Eta beraz, orain ari da rap indartsua sortzen, duela hamar urte beharrean, lehen ez zegoelako rapa entzuten zuenik, jendeak entzun nahi zuelako euskal pop erradikala. Egun, panorama aldatzen ari da.

Raparen berpizkunde horri ikusten diozue loturarik traparen *boom* globalarekin?

A.P.: Dudarik gabe. Gaur egun yankee trapero batek ateratzen du bideo bat, segundo batera hura ikusten ari naiz, eta euskaraz halako zerbait egin nahi badut, bihar bertan egin dezaket. Eta gero, esan dudana: gatazka politikoak musika aldarazi zuen, eta munduko joeretatik kanpo gelditu ginen -eta hori ez da ez ona ez txarra, baina gerta-





LIBURUA

Enarak azaro urrunetatik



ENARAK ITZULI DIRA GARI BERASALUZE

BOOKTEGI, 2019

IGOR ESTANKONA

Gari Berasaluzeren (Getaria, 1975) bide zirkularra oroiminarekin hasten da, eta bukatzen da etorkizunera begira: “Zurekin besarkatu ditudan hirien/ postalak biltzen baditut,/ ez da nostalgia izeneko hotel batean/ gauak pianoaren ondoan igarotzeko./ Noizbait/ zure larruaren kolorea izan duten/ lekuei begira esnatzeko baizik”.

Edo agian ez zen inoiz halako maitasunik egon, eta saudade horrek bizi gaitu, Habanan. Banderak, krabelinak, ezpainak, rona, hara idazlearen begietako eremu semantikoa. Hotelak, musuak, ametsak, trenak, horra Gari Berasaluzeren beste aletegi sentimental bat.

Intimitate publiko bat landu du poetak orrialdeotan, non mundua eta norbera ez dauden isolaturik, baizik eta


harreman betean: “Hala ere, ez genuen kalkulatu/ (...)/ eguneroko bossa nova salsa samba eta kunbia festak,/ (...)/ galduko genituenik”.

Gorputzak joan ziren baina paisajea hor da. Gutunak bueltatu zaizkio poema bihurturik. Badiotsuet: *Enarak itzuli dira* txorien euren ibilbidearen antzekoa da, ez dakiguna non hasi eta non bukatzen den.

Ezagutu genuen eta atzera hona datorren Gariren betiko eskua presente dago, ezinbestean. Orraztuko zituen hitzak eta mugituko zituen ostrakak baina, ez alferrik, “arkeologiatik hurbil dagoen poema sorta” da hau, aspaldi zirrimarratutako piezak denak batera. Idealen eta irudi erromantikoen nahastea dakarte, eta bere estilo bereziak

eder bihurtzen du urteek ekarritako galera oro, gozoki xamur arratsalde euritsu bat leihoan. Oparitu digu beraz liburu bat ederra, inarrosi dizkidana gure belaunaldiaren memoria eta borroka galduak. Izan ere Urrutikoetxearen kontzeptu horretatik datoz Gantzarain, Cano, Serrano, Aldai, Berasaluze. Eta gu, betirako Vladimir izango ginela uste genuenok, esnatu ginenean “hipoteka han zegoen oraindik”.

Monterroso eta Sarri, Casablanca eta Chiapas, klasikoetan klasikoena ez al da izango orain poesia mota hau, zeinaren gailur gorena den Gari Berasaluze, bere musikalitate, irudimen eta sensibiltate itzelarekin? Nork jakin. Zelan dakite enarek, bada, hegoalderantz egin behar dutela? ●



DISKOA

Iluntasunaren erakargarritasuna



©VA2

Aritz, Arih eta Fer-rek osatzen dute Arrotzak taldea.



LURZORU HOTZETIK ARROTZAK

HAINBAT ZIGILU

IKER BARANDIARAN

Arrotza da ezagutzen ez duguna eta agian, aurreiritziek bultzatuta, nolabaiteko mesfidantza sortarazten diguna. Arrotza da beraz ezer edo gutxi dakigula, urrun, distantzian sentitzen duguna; eta aldi berean, askotan, nolabaiteko intriga ere pizten diguna.

Eta arrotza egin zitzaidan, egia esan, talde honen diskoaren agerpena. Ez nekien Getarian (Gipuzkoa) halako proiekturik zegoenik eta sorpresaz hartu nuen, baita jakin-minez ere. Eskaintzaren gehiengoarekin talka egiten duten halako proiektuek interesa pizten dute nigan eta horregatik eta emaitzagatik berehala horrekiko gertutasuna sumatu nuen.

Nahiz eta diskoaren estetikak, argazkiek, kanteak, hitzek... ez duten gertutasuna eta erosotasuna propio transmititu

nahi: badute iluntasunetik, misteriotik eta arrisku sentsaziotik.

Diskoa deskubritu berritan jakin dut Aritz, Arih eta Fer taldekideak aurretik hainbat proiektu anitz, zaratatsu eta nahaspilatsuetan (Hell Division, Grem-liny, Keep Diggin, Curasan...) ibiliak direla, baina oraingoan –begi bistan dago– nahiago izan dute artifiziorik gabeko sinpletasunean eta iluntasunean indarrak jartzea, oinarrietara bueltatuta. Baita ere 2016an, arrapaladan, –Frantziako bira baten bezperan– hainbat kanta grabatu eta batu zituztela kasetean, ez beste inongo formatuan.

Honako diskoa –hortaz, bigarrena– Paulinni Records, No Thanks, XCementerioX eta Donnez Moi Dudfen zigiluekin (azken hau frantziarra, besteak Euskal

Herrikoak) kaleratu dute eta gogoz edaten du AEBetan 80ko hamarkadan sortutako hainbat punk talde ilunetarik: Wipers kasu, baina baita TSOL, Agent Orange eta beste batzuetatik. Melodikoak dira kanta guztiak eta abiadura ere tamainan dute, baina ia beti oinarritzen dira malenkoniak betetako riff apal baina sarkorretan. Euskara eta gaztelania tartekatuta oso hitz pertsonalak idatzi dituzte, punka, melodia apala baina dotorea, iluntasun kutsu handia, gazi-gozo eta garraztasuna eta tarteka abiadura uztartuta.

Ez dituzte hit!-ak idatzi nahi eta ez dago berez nabarmentzeko asmoarekin idatzitako piezarik –tonua eta tempoa kontrolatuta daude– baina bereziki gozatu ditut *Lagun zaharra*, *Garai berri bat* eta *Niños navaja* kantuekin. ●



Erritmoaren indarra izan da

 XALBA RAMIREZ
 VELS TRIOREN WEBGUNETIK HARTUA

Donostiako Dabadaba aretoan Europan zehar biran ari diren taldeak ikusteko aukera egon ohi da, asteen zehar, normalki. Bestela ohikoa ez litzatekeen kontzertuaz gozatzeko aukera izan da irailaren 11n, Vels Trioren eskutik.

Brightonetik (Erresuma Batua) dator hirukoa, eta hasi berria izan arren eza-guna da jazz eszena berrian. Bost kantu biltzen dituen euren lan bakarra 2017an kaleratu zuten eta 2018an single bat streaming plataformen bidez. Sei kanturekin izena sortzen aritzea ez da ez, lan erraza. Tarte txikian oholatza partekatzea lortu du Cory Henry and the Funk Apostles, Sons of Kemet, Boses Boyd's Exodus, Nubya Garcia eta abarrekin.

Jazz zirkuitua den arren euren jokalekua, etiketak aurreiritziak baino ez ditu sorraraziko. Jazza da euren estiloa, zailantzarik gabe, euren musikan inprobisazioak daukan lekuagatik. Baina etiketa horrekin antzeko beste taldeak bilatzea ez da hain erraza izango. Baxua, bateria

eta teklatu sintetizadoreak dira forma-tua. Eta hori Herbie Hancock-ek asmatu bazuen ere, bestelakoa da hirukoteak dakarren kolorea.

Funk geldoa, hip-hopa, trip-hopa eta elektronika dira jorratzen dituzten doinuak. Kamaal Williamsengandik (lehen Yussef Kamaal) gertu daude kontzeptuak, baina ezin dira bere talentu erraldoiarekin konparatu. Horregatik konposaketak xumeagoak dira, eta indargunea beste nonbait bilatzen dute. Indarrean adibidez.

Vels Trioren grabaketetan antzematen ez den energia eraman dute zuzenekora. Kantuak azkarrago eta indartsuago egin baitituzte. Dougal Taylor bateria-jotzaileak du errua, ziurrenik. Hip-hoparen ezaugarri den monotonia apurtzen du, platerak ondo asko egurtuz. Bonboari ere beltzetan indartsu ematen dio, une batzuetan technora salto egiten dutela iruditzeraino. Erritmoa, batzuetan, Cameron Dawson baxu-jotzaileak eraman behar du beraz.

VELS TRIO MUSIKA TALDEA

NOIZ: irailak 11.

NON: Dabadaba aretoa, Donostia.

Buruarekin markatzen ditu azentuak, Taylorrek solo aske bat egiten duen birtartean. Batzuetan ez dakigu nahastu nahian dabilizan edo muturreraino eramaten duten tempoak.

Jack Stephenson-Oliver tekla jotzaileak dauka melodia eramateko erantzukizun osoa. Batzuetan soinua kontrolatzea zaila egiten zaion arren, ondo asko betetzen du espazioa. Sinte luze batekin akordeak egin eta bestearekin melodia eta soloak. Bi eskutarako hiru teklatu gutxitxo duela dirudi batzuetan.

Kontzertu ederra eman dute. Inprobisazioak ondo uztartu dira groove indartsu eta dantzagarriei. Erritmo bikaina eta inspiragarria ekarri dute asteazken buruzurira. Pena handiena ziurrenik sasoiko Donostiako kontzertu onenetakoan aretoa erdi hutsik zegoela. 40 lagun inguru 300dik gora lagunentzako espazioan. Jazzaldia izango balitz aretoa beteta egongo litzateke, ziurrenik, baina donostiarrontzat udako jaialdietako musika baino ez da jazz. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:



1. Ibilaldi atsegin. Elkartē bateko partaide. 2. Ez hotz ez bero. Txibiaren antzeko moluskuak. 3. Algara, karkara. 4. **Zuberoako udalerria (argazkian).** 5. Trikitian, adore emateko. Urrebotoiaren familiako landarea, lore handi more edo zuriak ematen dituenā. 6. Upa, barrika. Edeneko. 7. Garatzeko ekintza. Zur, harri edo metalen bati forma ematen. 8. Itxura. Palauko Errepublikako hizkuntza.

GOITIK BEHERA:

- 1.** Azpiko, mendeko. Umeen Gabonetako Parkea. **2.** Haur hizkeran, altxatu. Umil, xume. **3.** Serbian hitz egiten den serbokroazieraren forma. **4.** Elkarrekin eginiko lan. **5.** Nekazariaren lanabes. Platinoa. **6.** Pilota jokoan, angeluan bertan jotzen duela. Azpia. **7.** Segurtasunik gabe, zalantzan. **8.** Itogin. **9.** Dago. Nafarroako herria. **10.** Atzizki ekologista. Munitzipal. **11.** Bakoitzak bi. **12.** Mehe. **13.** Altu. **14.** Ahuntzaren ar. **15.** Piraten edaria.

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Inor
Ugaztun izena
Tontor
Oinaren azpia
Bataiarri
Zintzo
Kirol mota
Familia
Nahi bizi
Istilu
Senar
Gatibu
Diru truke lortu

[illegible]

Sudoku

ERRAZA

		3					4	
			7			5	1	9
6			5	9			2	
				6				2
	7	1				6	3	
4				2				
	2			5	8			3
9	6	8			3			
	3					2		

ZAILA

		8						9
3	6		9				2	
5			7		8			
	3			9	5			
2			6		1			7
			2	3			4	
			1		2			8
	5				9		1	3
4						2		

EBAZPENAK

ATSOTZITZA
AMETSIK GABEKO BIZIA,
IZARRIK GABEKO GAUA.

ATSOTZITZA

6	9	6	2	3	7	5	1	8	4
3	1	7	9	8	4	2	5	6	4
8	5	4	2	6	1	3	7	9	4
5	4	9	7	3	6	2	1	8	4
7	2	3	7	9	6	1	8	4	5
4	5	8	1	3	6	2	5	7	9
3	4	7	2	9	5	6	1	8	4
6	9	4	8	3	7	1	5	2	6
1	4	8	3	2	6	5	7	9	4

EHOR
OREIN
ERPIN
OINPE
PONTE
ONEST
TENIS
SENDI
DESIO
SESIO
ESPES
PRESO
EROSI

ANAGRAMAK

ESKER-ESKUNI: 1. PASOZ, KIDE, 2. EPELT, POTIK, 3. KARKARIL, 4. BARROZ, 5. NIE, KUKUBATZ, 6. UPELT, PARADISUKO, 7. GARAPEN, LANTZEN, 8. PLANTA, PLAUERA.

GOTTI BEHRA: 1. PEKO, UGR, 2. APA, APAL, 3. SERBIERA, 4. ELKARLAN, 5. ARE, PT, 6. PIK, PEA, 7. KOTOLON, 8. ITXUXU, 9. DA, EKKAL, 10. EKO, UDAL, 11. BINA, 12. ESTU, 13. LUZE, 14. AKER, 15. RONA.

ERRAZA

ERRAZA

9	3	8	1	2	/	4	6
8	4	2	7	3	6	5	1
6	1	7	5	9	4	3	2
3	5	9	4	6	1	8	7
2	7	1	9	8	5	6	3
4	8	6	3	2	7	1	9
7	2	4	1	5	8	9	6
1	6	8	2	7	3	4	5
9	3	5	6	4	9	2	8
7	1	6	8	5	1	9	3

Olivier Ducharme

LANAREN BALIOA ERLATIBIZATUZ



INFORMATZEKO XEDEZ

"Filosofia doktoretza eta doktoratu ondokoa bukatu, lana aurkitzeko zailtasunak ukan nituen. Aurrezturiko dirua xahuturik, laguntza soziala eskatu behar izan nuen. Kurios, programa horien historiaz, oinarriez eta funtzionamenduz interesatzen hasi nintzen. Laster konturatu nintzen idatzi gutxi zegoela horretaz. Laguntzaren galdegileak lanbidea birziklatzera behartzen dituen *Objectif emploi* programa ere indarrean zegoen Quebecen. Hortik atera zen liburu hau".

"Gehiengoak ez du ideia izpirik laguntza soziala daukatenen errealitateaz"

Laguntza sozialaren banaketari begira jarri da Olivier Ducharme filosofoa. Ongizate estatua gertu zegoen garai hurbilean eskubide izatetik, baina indarraren truk jasotzen duzun ordaina bilakatu zaigula azaltzen du. Aldaketak ezinbesteko, lehen iraultza gure buruetan egin beharra kontseilatzen digu filosofoak: soldatapeko lanari bideratzen diogun garrantzia eta balio soziala txikitzea.

 JENOFA BERHORKOIRIGOIN  FRANCIS VACHON

Pobreziari buruzko tolerantzia handia daukagu. Nolaz?

Soldatapeko lana pribilegiotzat duen jendarte batean gaude, zeinetan lanaren etika arau moral inportanteen artean daukagun. Maiz entzuten dugu: "Aski du lan egitea pobreziatik atera nahi badu".

Pobreei begira ez hainbeste. Alferrak, baliatzaileak... Nondik dator irudi ezkor hori?

Nahi nuke jakin galdera horri erantzuten, baina ez dakit. 1969etik, hots, Quebecoko laguntza sozialaren hasieratik presente dugu eta lehenago ere hor zegoen. Belaunaldiz belaunaldi partekaturiko aurreiritziak ditugu. Sentsibilizazio lan handia dago oraindik egiteko, gehiengo zabalak oraindik ez duelako ideia izpirik lagundurikoen errealitateaz.

Zergatik mespretxu hau?

Uste dugulako alferkeriz eta hautuz direla laguntza sozialaz baliatzen. Uste dugulako ez dutela benetan lanik nahi

eta jendartearen integraztea ez dutela xede. Langileek diruztaturiko existentzia hautatzen dutela uste dugulako. Noski, aurreiritziak dira, belaunaldiz belaunaldi erroturikoak eta askoren izpirituetan zabaldukoak.

Nola aldatu irudi hori?

Uste dut soldatapeko sistematik atera beharko genukeela, errespetua merezi duen lan bakarra soldatapekoa dela dioen ustearekin behin betikotz bukatzeko gisan. Argi da aterabide hau ez dugula bihar goizeko.

Nolakoa litzateke antolaketa berria?

Kontua ez da soldatapeko lan oro kentzea, baizik eta legitimitate sozialaren oinarrian soldatapeko lana jartzen duen ustea zalantzan jartzea. Nolakoa litzatekeen? Inork ez daki. Guztiok gara soldata sistema honen emaitza, lan merkatuan parte hartzeko heziak izan gara. Baina argi da ekoizpen eta kontsumo kapitalistatik atera beharko dugula, ekologia eta naturaren errespetuan oinarrituri-



"MERITOKRAZIAREN SUSTRAIAK TRADIZIO OSO ZAHAR BATEAN KAUSITZEN DITUGU".

ko bizimodua garatzeko. Aldaketa hau erradikala zein beharrezkoa dugu.

Kontua da lagunduek ere usu barneraturik dutela ikuspegi ezkor hori.

Eguneroko pobrezian eta bizi baldintza txarretan aitzina doaz, egin ahala. Horrez gain, besteen begirada eta komunikabideek zabaldu irudien pisua pairatu behar izaten dute.

Laguntza sozialaren sistema aldatuz doa.

Bigarren Mundu Gerraren biharamunean, ongizate estatuaren garapenarekin, pertsonen beharretan oinarrituriko laguntza eredua garatu zuten, welfare deiturikoa. Laguntza sozialaren eskubidea zekarren, kriterio bakar gisa herritarren ongizatea zuela. Neo-kontserbadurismoaren garapenarekin ordea, beste laguntza sistema bat agertu zen 70eko hamarkada bukaeran. Lagunduen lanetik eta formakuntzatik iragaiten da estatuaren dirulaguntza, ordaina exijitzen diete laguntzaren truk.

Meritokrazia dela erran dezakegu.

Meritokraziaren susturriak tradizio oso zahar batean kausitzen ditugu. Testamentu berrian, Paulen ondoko esaldi ospetsuan: "Batek ez badu nahi lan egin, ez dezala jan ere egin!". Erran hau behin eta berriz hartua izan da mendeetan zehar, esanahi ezberdinekin baina arau moralaren balioa mantenduz. Soldatapeko lanari zor diogun errespetuaren oinarrian dago arau moral hau. Horrela itzuli dezakegu: batek lanaren bidez jendartearen aberastean ez badu parte hartzen, ez dadila diru publikoaz profitatu.

Laguntza sozialaren eskubidea dugu zalantzan. Nola saihestu?

Jakintzaz. Pobrezia biztanleriaren osotasunean dauzkan ondorioei buruz informatu behar dira etengabeen herritar zein hautetsiak. Eguneroko lana dugu hau. Murrizketek argiratzten digute laguntza soziala jasotzen dutenei buruz ezjakintasuna eta aurreiritziak direla nagusi gobernua zein gehien goaren baitan.

Elkartasun tresna horiek guztiak desagerraraztea du amets neoliberalismoak.

Badira jada hainbat hamarkada ongizate estatua atakaturik dagoela. Quebecen zein beste herri guztietan, biztanleriari eskaini zerbitzuak murriztuak edota privatizatuak dira. Tamalez, gaur egun ez gaitza eskubideen hobetzerako aldarrietan, eskubide horiek defendatzen gaude.

Zer diozu oinarritzko errenta unibertsalaz?

Gaur egungo testuinguruan, oinarritzko errenta unibertsal beharrezkoa dugu, guztiok oneski bizitzeko eskubidea bermatzeko. Laguntza sozialak ez digu hori bermatzen. Beharrezkoa izanik ere, ez litzuke arazo guztiak konponduko. Lanaren etikari lotu behar genuke, jendartearen partetik errespetua eta legitimitatea bermatzeko bide bakarra dugulako. Hori gabe, lanean ez dagoena berriro ere eriz seinalatua litzateke, komunitateari ezer ekartzen ez dion baliatzaile gisa ikusia litzatekeelako. Beraz bai, beharrezkoa da, baina ez da ezertan nahikoa. ●



Milaka bizkaitarrek izena aldatu dute: "Athletic Zabalgogeaskoa naizenetik ez dut zergarik ordaintzen!"



IZENA ALDATU DUTEN BIZKAITAR ASKO FUTBOLZALE BIHURTU DIRA BAT-BATEAN.

Bizkaiko Foru Aldundiko izen-erregistroetan pertsonala bikoiztu behar izan dute azken astean, probintziako herritarrek izena aldatzen hasi direlako. Albiste hau idazten ari garen momentuan, dagoeneko 4.673 bizkaitarrek beren izena aldatzeko eskaria dute. Adin eta jatorri ugaritako pertsonak dira, baina denek izen berri berdina aukeratu dute: Athletic. "Jakin nebanean Athletic-ek 15 mi-

lioio euro gutxiago pagatuko eutsezela Diputaziñoari sudur puntan jarri jakolako, esan neban: 'Proba egingo dot'. Eta funtziona", azaldu digu Athletic Zabalgogeaskoak, orain arte Mikel Zabalgogeaskoa izenez ezagutzen zuten Erromoko bizilagunak. "Futbola gutxiago inportatzen batentzen eperdiko ilajea baino, baie joder, honela edonori pizten jakolako afiziñoa", gehitu du Zabalgogeaskoak. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Euzkadi bada,
azkatuta izan behar du ezta?



Tourist, remember:
dena berdin da,
zuk ordaindu eta listo



Ikasleek Instagramen zer idazten duten ikusita, Euskarako irakasle batek baja hartu du depresioagatik

Nekane Zuzentegi 43 urteko irakasle ordiziarrek depresioagatik baja hartu zuen joan den ostiralean, ikasturtea hasi eta berehala. "Aurten Azpeitian eman behar nituen eskolak, ezta? Eta denak zo-ra-ga-rri-a zirudien, ezta? Beraien artean euskaraz aritzen dira, jator-jatorrak ematen dute... altxor bat, ia inon aurkitzen ez den zerbait, ezta? Baina gero haietako baten Instagramean sartu nintzen, ezta? Eta, ez

dakit nola esplikat", adierazi dio Beranduegiri malkotan lehertu aurretik. Euskaraz aritu arren ortografia-arau bakar bat ere errespetatu gabe, erdaratik hartutako kalkoak eta "kai-xo" esatea bezain natural ateratzen zaien espresioa: "Pertsonalki pelau iteziat". "Koldo Mitxelenak burua altxako balu!", egin du oihu desesperatuta Zuzentegik, pilula lasaigarri bat hartu aurretik. ●

Jakoba Errekondok

sinatuta jasotzeko aukera

AGENDA
SALGAI!

12€



Hemen duzu urte osoan egin beharreko lanen agenda, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilargialdiari lotuta.

Baratzean, fruitu arboletan, lorategietan, basoan noiz zein lan egin? Erein, landatu, inausi, tratatu, uztak jaso, txertatu...

azoka.argia.eus

bizibaratzea@bizibaratzea.eus / 943 37 15 45

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus



ARGIA

AURTENGO GAIA: **Zuhaitzak**



URRIAK 12

DONOSTIAN

**DESKOLONIZA
GAITEZEN!**

ARGIAREN MENDEURREN FESTA

URRIAK 11 OSTIRALA

**21:00 NAPARDEATH
FILM TRILOGIA
IKUSGAI**

TRINITATE PLAZA

URRIAK 12 LARUNBATA

**11:00 ZOMORRO
BILA URGULLEN**

Iñaki Sanz biologoa
eta Eñaut Aiertzaguena
marrazkilariek gidatuta.

TRINITATE PLAZATIK HASITA

**12:00 IBILBIDE
HISTORIKOA
KALEZ KALE**

Txistulariek gidatuta, Urko Apaolaza
historialariaren azalpenekin eta
Beñat Gaztelumendi eta
Miren Artetxe bertsulariek zirikatuta.

TRINITATE PLAZATIK HASITA

**13:00 SOKA-DANTZA
KONSTITUZIO PLAZA**

**14:00 BAZKARI
HERRIKOIA**

Saizar sagardo barrika,
mahaia eta aulkiak.
Janaria bakoitzak berea eraman.

TRINITATE PLAZA

**16:00 POBRESIAK
EMANALDIA**

TRINITATE PLAZA

17:00 PAILAZOAK

Txirri-Mirri-Txiribito Junior-en emanaldia.

SAN TELMO PLAZA

**18:00 NAN ARROTZEN
JAURTIKETA TXAPELKETA**

TRINITATE PLAZA

**19:00 KALEJIRA
DANTZARIA**

TRINITATE PLAZATIK ABIATUTA

20:30 KONTZERTUAK

TRINITATE PLAZA

**AMAREN ALABAK
MURSEGO**

**BALERDI BALERDI
NIÑA COYOTE ETA
CHICO TORNADO**

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



Euzko Legebiltzarra, gay, bisexual,
trans eta intersexualen elkartea



LAGUNTZAILEA:

